

III.
Ataun
ztergai
Beka



Migel Imaz Apalategi

Azterketa Historiko-Biografikoa

Iñaki Imaz Mujika

© **Antolatzailea:** Ataungo Udala

Koordinatzailea: Santi Etxeberria Goikoetxea

Argitaratzailea: Ataungo Udala

Laguntzailea: Kutxa Fundazioa

Egilea: Iñaki Imaz Mujika

Argazkiak: Imaz Mujika sendia
Ordoño y Gómez sendia
Jone Galparsoro, Jexux Etxeberriak eta Serafin Jaka

Testu-orraztailea: Jon Goikoetxea Mujika

Fotokonposaketa eta inprimategia: Antza S.A.L. - Lasarte-Oria

I.S.B.N.:

L.G.:

III. Ataun Aztergai Beka



ATAUNgo UDALA

MIGEL IMAZ APALATEGI AZTERKETA HISTORIKO-BIOGRAFIKOA

Iñaki Imaz Mujika

Ataun, 1998



1966ko uztailearen 17an jaio zen Donostian, baina harrezkero Ataungo Astiarra auzoan bizi da.

O.H.O.ko ikasketak Ataungo eskolan eta batxilergoa Beasaingo Alkartasuna Lizeon egin zituen. 1984tik 1989ra Geografia eta Historia ikasketak egin zituen Donostiako E.U.T.G. ikastetxean, Euskal Herria eta Espainiako Historian espezializaturik. Nahiz ikasketak Historia eremutik sakondu, lanean, Liburutegien, Artxiboan eta Dokumentazioaren munduan murgildurik ibili da.

Ataungo Udal Liburutegian, 1990tik 1992ra bitarte arduradun lanetan jardun zuen, lehendabizi antolatu eta gero jendaurrean, herritarrengana, zabalduaz. Gero, E.T.B.ko Dokumentazio eta Artxibo zerbitzuan lan egin zuen Dokumentazio laguntzaile bezala hiru urteetan zehar.

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Liburutegi Zerbitzuan lan egiten du Teknikari moduan. Migel Imaz ataundarrari buruzko lan hau da argitaratzen den bere lehendabiziko lana.

AURKIBIDEA:

0. Sarrera

1. Ataundar jatorria. Lehen urteak

- 1.1. Ataundar jatorria
- 1.2. Lehen urteak. Hautzaroa
- 1.3. Arte eta Lanbide Eskola
- 1.4. Migel Imazen bizitza

2. Migel Imazen lanak

- 2.1. Donostia: XIX. mende bukaera eta XX. mende hasierako hazkundera
- 2.2. “Miguel Imaz y Sociedad”
- 2.3. Migel Imazen hasierako lehen lan ezagunak : San Bartolomeko muinoa eta Pasealeku berria
- 2.4. María Cristina Hotela eta Victoria Eugenia Antzokia (1910-1912)
- 2.5. Justiziako Jauregia (1912-1916)
- 2.6. Kursaal eta Gros auzoko zabaldua: “Sociedad Inmobiliaria del Gran Kursaal Marítimo de San Sebastián” elkartearen osaketa
- 2.7. Migel Imaz “Sociedad Inmobiliaria del Gran Kursaal” elkartearen sartzen denean
- 2.8. Zurriolako zubia
- 2.9. Kursaal Kasinoa
- 2.10. Gros auzoa
- 2.11. Ataunen egindako obrak (Astiarrako zubia, Erremedio)

3. Heriotza eta ondoren egin ziren omenaldiak

- 3.1. Heriotza (1925-06-06): Arrazoiak
- 3.2 Migel Imaz Kalea
- 3.3. Koadroa
- 3.4. Testigantza

4. Azken hitzak

5. Bibliografia

SARRERA

Ataundar askori galdera berdina bururatu izan zaio Ataungo Udaletzeko batzar aretoan dagoen koadroari begiratzean. Nor ote da gizaseme hori eta zer egin ote zuen bere irudia hemen egoteko? "Hori Migel Smaz da, Donostiako Kursaalako zubia egin zuen ataundarra". Honen antzeko erantzunak jasotzen genituen.

Migel Smaz ataundarra, ospetsua izan arren pertsonaia ezezaguna da. Berari buruz inongo idazlanik ez da argitaratu, eta gehienez, aipamen soil batzuk egin zaizkio (Añaamendi Entziklopedian 1 eta Ataungo herriari buruzko lan monografikoan 2). Familia gehienetan, arbaso ospetsu edo bereziren bat izan ohi da eta nire kasuan, gure aitgjaunaren osaba zenez, Migel Smazi buruzko hainbat pasadizo entzun izan ditugu etxean. Gure etxeko altxor kutunen artean bera agertzen den zenbait argazki izan dira.

Hainbat urtetan berari buruz nuen jakinmina alde batera utzita izan dudala aitortu behar dut. Ataungo Udalak bideratzen duen **ATAUN AZTERGAI BEKA** dela medio, pertsonaia honi buruz azterketa historiko-biografiko bat egiteko proposamena aurkeztu eta lanaren proiektua onartu ondoren, ikerketari ekin nion. Ahalegin horren emaitza da ondorengo lan hau.

Proiektuan azaltzen nuen bezala, lan hau betzerakoan, zenbait puntu bereiztu nahi izan ditut, batipat Migel Smazen bizitzari dagokionean. Lehenengoz, bere ataundar jatorrian arakatu, gurasoak, haurtzaroa, gaztaroa, etab. Donostian eman zituen urteak, ikasketak eta lan-munduan emandako lehen urratsak, bere bizitzan zehar egindako lan garrantzitsuenak, Donostiako pertsonaia garrantzitsu batean bilakatu zenekoa, eta azkenik bere zorigaitzeko heriotza.

¹ Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Cuerpo A. Diccionario enciclopédico vasco. Vol. XIX. Hurbi-Insu. Donostia, Añaamendi, 1985, 397 orr.

² AA.BB. "Ataun", Donostiako Aurrezki Kutxa, 1978, 91 orr.

Lana burutzeko garaian, bere bisitzako zenbait pasarte aztertzea, batez ere haurtzarora eta lanean eman zituen lehen urteak, oso zaila suertatu zait dokumentazio eskasiagatik. Aldiz, bere lan garrantzitsuenak burutu zitueneko urteak aztertzea errazagoa izan da, hainbat liburu eta egunkaritan berari buruzko aipamenak aurki daitezkeelako, dagoeneko pertsonaia garrantzitsu bihurtzen ari zeneko islada direlarik.

Dokumentazioaz gain, saiatu naiz bera ezagutu zuten pertsonekin harremanetan jartzten. Nahiz eta aurretik jakin oso zaila gertatuko zitzaidala, Ataunen bertan badira hainbat pertsona ezagutu zutenak, bai pertsonalki bai urte haietan etxean entzundako istorioen bitartez. Beraien eskerrak ematea nahiko nuke, lan honen oinarrietako bat heuren testigantza izan delako : Imaz senitartekoak, Ordoño senitartekoak, Tomas Dorronsoro...

Lan honekin Migel Imazen bisitza eta lanak ataurdarrei hurbiltzea izan dut helburu. Bere izena Ataungo Udaletxeko batzar-aretoan zintzilik dagoen koadroarekin lotzeaz gain, bere biografia ezezaguna argitzen laguntzen badu, nire ahalegina nahikotzat joko dut.

Ataunen, 1997ko abenduaren 15ean

IÑAKI IMAZ MUJICA

1. ATAUNDAR JATORRIA. LEHEN URTEAK

1.1. Ataundar jatorria

Arrondo auzoko Estrada berri etxean jaio zen Juan Migel Imaz, 1873ko ekainaren hogeita bostean, arratsaldeko hiruretan. Bere gurasoak, Manuel Imaz Unanue arrondotarra, parean duen Zapatania edo Zapatai zarra etxekoa zen (gaur egun Rafaelene bezala ezagunagoa dena), eta ama, Manuela Apalategi sangregoriotarra, Arratibel berrikoa. Jose Martin Dorronsoro erretoreak bataiatu zuen jaio eta hurrengo egunean Ataun San Martingo parrokian, eta aita pontekoaren lanak bete zituen bere osaba Juan Miguel Aguirreren izena jaso zuen.

Bere jaiotetxea, Estrada berri, Arrondo auzoan dagoen etxea dugu. Estrada zarra edo Extra zarra izeneko etxe bat bazuen aldamenean XIX. mendearen erdialdean, baina On Juan Arin Dorronsorok Ataungo toponimiari buruzko ikerketan³ dioenez, aurreko mendearen erdialdean desagertu zen inongo arrastorik utzi gabe. Gaur egun, aldameneko Lizarmuntegi etxean errementeri batek jarraitzen du lanean. Astiarra eta Arrondo auzoetan, kalekumeak edo “attelumeak”⁴ baserritarrak baino ugariagoak izan dira betidanik; hau da, nekazaritzak baino garrantzi gehiago izan dute beste zenbait lanbidek, eta hori etheen izenak garbi adierazten dute⁵: Barbeone (barbero edo sendagilearen etxea), Txataiñenea (txertatzailearen etxea), Paskiñane (pastagilearen etxea), Dornaiñe (tornulariaren etxea), Ermentari txiki eta Ermentari aundi (errementeria) eta Zapatania edo



Migel Imazen jaiotetxea: Estrada berri

³ Arin Dorronsoro, Juan, “Establecimientos humanos y toponimia: Toponimia del pueblo de Atáun”, Anuario de Eusko-Folklore, Tomo VIII, 1928, 31. Orr.

⁴ “Ataun”, Donostiako Aurrezki Kutxa, 1978, 21. Orr.

⁵ Arin Dorronsoro, Juan, “Establecimientos humanos y casa rural : Pueblo de Atáun”, Anuario de Eusko-Folklore, Tomo VI, 1926 (17-69 orr.)

Zapatái zarra (zapateroaren etxea) dira horren lekuko. Auzo hauetan, nekazari-tzatik bizi ziren baserriak ere aurki ditzakegu, baina bi, hiru eta lau etxebizitza zituzten etxeak, beste auzoetakoekin konparatuz gero ugariagoak ziren. Noski, maizter bezala bizi ziren eta beraien ogibide nagusienak, baserrietan eguneko soldataren truke lan egiteaz gain, basogintzan, hargintzan, arotzian, errotako edo errementerietako langile bezala ihardutea zen.

Estrada berri edo Extrâ berri (Estrada nueva), Juan Arin Dorronsorok Ataungo toponimiari buruz idatzirik lanean dioen bezala⁶, XVIII. Mendearen erdialdean eginiko etxe bat zen eta errementeria bat zuena eraiki zenetik (orain dela gutxi desagertua). Etxearen egiturari dagokionez, ohiko kaleko etxe bat bezala har daiteke, baina baserrietako egiturarekin zerikusia duena: beheko solairua, denda, biltegi edo kasu honetan, errementeriarako prestatuta dago; bi edo hiru solairu egon daitezke, solairu bakoitzak etxebizitza bat barne hartzen duelarik; eta azkenik, ganbara, bi edo hiru zatitan bananduta etxebizitzaren arabera. Migel Imazen jaiotetxea era honetako eraikina dugu, eta gaur egun hutsik egon arren, orain dela hamabost urte arte bi familia bizi izan ziren bertan.

1873 inguruan, bi familia bizi ziren Estrada berrin, eta Migel deituriko muti-koa, Manuel Imaz Unanue errementaria eta Manuela Apalategi Auzmendi senar-emazteen seigarren eta azkeneko semea izan zen.

Manuel Imaz Unanue (Migelen aita), Andres Imaz eta Ana Antonia Unanuek izan zituzten zortzi seme-alaben artean seigarrena zen. 1823. urtean jaio zen Zapateria edo Zapatái zarra etxean, eta gurasorik gabe gelditu zen gaztea zela. Baserriko semea ez zenez, hogeitau urte inguru zituela Oñatira joan beharra izan zuen lan bila eta ia hogeitau urte emango zituen herri honetan, Atauna itzuli aurretik. Oñatiko herria, administratiboki, Gipuzkoako probintziatik kanpo zegoen, nahiz eta lurralde honekin oso harreman estuak izan politikoki eta ekonomikoki. 1845 inguruan krisi ekonomiko sakon batean murgilduta aurkitzen zen eta hori konpontzeko, Gipuzkoako probintziarekin elkartzeko eskatu zuen, era honetara Legazpitik Oñatira zabaltzeko ziren errepedearen egitasmoa erraztuz eta lan horren kostua Gipuzkoako Aldundiari bizkarreratuz. Errepide honen zabaltzeak, onura asko ekarriko zien oñatiarrei. Honela, lantegi batzuk irekitzea ahalbidetu zuen, biztanle kopuruak igoera nabarmena izan zuelarik. 1857. urtean, 5.646 biztanle izatera heldu zen⁷, Gipuzkoako herri nagusien artean aurkitzen zelarik, Tolosa, Eibar eta Irunen pare.

Manuel Imaz ataundarrak, errementariaren lanbidea ikasi zuen Oñatin . XIX. mende erdialdera, burdina lantzen zuten bi lantegi egoteaz gain, iltzeak egiten eta sarrailagintzan iharduten zuten hainbat ola zeuden Oñatin. Hauetako batean lanean ihardun, lanbide honen trikimailu guztiak ikasi, diru piska bat aurreztu eta Atauna itzulitakoan Estrada berriko errementeria erosi eta bertan lanean aritu zen, 1876an hil zen arte.

⁶ Arin Dorronsoro, Juan, "Establecimientos humanos y toponimia: Toponimia del pueblo de Atáun", Anuario de Eusko-Folklore, Tomo VIII, 1928, 31 orr.

⁷ Zumalde, Ignacio, "Historia de Oñate", Diputación Provincial de Guipuzcoa, Donostia, 1957, 339 orr.

Oñatin eman zituen ia hogeitaz urte horietan, lan egiteaz gain, bi aldiz ezkondu zen bertako bi emakumeekin, baina zorte handirik gabe. Aurreneko emaztea, oñatiarra izan arren aita San Gregoriokoa zuen Trinidad Antonia de Urrestarazu izan zen. 1849an ezkondu ziren Oñatiko San Migel elizan, baina 8 hilabete geroago, 1850ko Errege-egun bezperan hil zen hogeita bat urte zituenean. Bigarren emaztearekin, hogeita hamabost urte zituen Josefa de Elorzarekin, 1852ko urriaren 30ean ezkondu zen, baina honek ere handik bost hilabetera alargun utziko zuen.

Hirugarren eta azken emaztea izango zena, Ataunen aurkitu zuen. San Gregorioko Arratibel berriko Manuela Apalategi Auzmendi izenekoa. Francisco Apalategi eta Francisca Auzmendiren alaba zaharrena zen. Ezkontza, Ataun San Gregorioko elizan ospatu zen 1861eko urtarrilaren 10ean, Manuelek 37 eta Manuelak 27 urte zituenean.



*Estrada berri: etxearen ezker aldean errementeria
edo sutegia non zegoen ikusten delarik*

Oñatin bizi izan ziren lau urtetan zehar, Atauna itzuli arte. Urte hauetan, 1864ean lehen semea izan zuten, Doroteo izenekoa (nire birraitona), eta 1865 inguruan Arrondoko Estrada berri etxea erosi eta bertako errementerian lanean hasi zen. Beste bost seme-alaba izan zituzten; Maria Petra (1865), Eusebia (1867), Maria Modesta (1869), Seberiano (1871) eta azkenik Juan Migel (1873).

Errementeri honetan mota askotako lanabesak egiten zituzten, baserriar nahiz basogintzan ziharduena jendearentzako. Esate baterako, segak, igitaiak (ittaiak), hiruortzekoak, lauortzekoak, aizkorak, aitzurrak, jorraiak, iltzeak, etab. Baita ere etxeetan egin ohi ziren zenbait lan egiteko beharrezko hainbat tresna ere: suburniak, talaburniak, krespiak (hiru oin eta helduleku bat duen burdinez-

ko aroa edo uztaia, bere gainean sukaldeko lapikoak edo beste edozein ontzi ipintzeko erabiltzen zen trastea), danbolinak, burrunziak, lapikondokoak, etab. Hargintzan ziharduten langileei ere bai: arginpalak, harriak txikitzeko borrak, zizelak egin eta konpontzen nahikoa lan izango zuen Estrada berriko errementaria edo sutegiak.

1.2. Lehen urteak. Haurtzarora

Migel Imazen lehen urteak gogorrak izan ziren. Hiru urte zituelarik, aitarik gabe gelditu zen .1876ko otsailaren 4an hil zen Manuel Imaz, berrogeita hama bi urterekin. Bere alarguna, Manuela, handik hilabete gutxitara (1876ko abenduaren 19an) ezkondu beharrean gertatu zen, itxura denez , errementeriako langilea zen Plácido Gil y Gonzalezekin, haurdu zegoelako.1877ko ekainean jaio zen Juan Bautista Gil Apalategi, Migel Imazen anaiordea, hogeita bi urterekin hilko zena 1899an.

Plácido Gil y González de Liquidana, Arabako Heredia herrian jaiotako errementaria zen eta Estrada berrin langile modura zebilena urte batzuk lehenagotik. Manuel Imaz hil ondoren, berak jarraitu zuen errementeriako lanean. Doroteok, Migel Imazen anaia zaharrenak, laguntzen zion lanbide honetan. XIX. mende Erdialdeko Ataunen ez ziren oso ugariak izango herritik kanpo etorritakoak; idazkaria, Diputazioko mikeleteak eta maisu-maistraren batzuek izan ezik. Are gutxiago, erdaldunak zirenak, Plácidoaren kasuan bezala. Berezitasun honek, nolabaiteko eragina izango zuen Migel Imazengan. Alde batetik, gaztelera, herriko eskolan ikasteaz gain, etxean erabili beharrean izango zen eta Donostian emango zituen urteetan baliagarri izango zitzaion, bai ikasketetarako bai lanerako.

Doroteok ere errementariaren lanbidea hartu zuen bere ogibide bezala, eta Aundietxetikiko Francisca Mendiarekin ezkondu ondoren, Astiarrako errementariaren ardura hartu zuen. Arreba zaharrena, Maria Petra, oso gazterik hil zen, eta beste bi arrebak, Eusebia eta Modesta, Donostiara joan ziren bizitzera urte batzuk geroago, Migelen ospea hastearekin batera. Doroteo etxetik joan ondoren, Seberiano gelditu zen errementeriko lanetan bere aitaordekoari laguntzen. Ia hogeita hamabost urte geroago, Estrada berrin hil zen 1911ko apirilean, 71 urterekin. Emaztea, Migel Imazen ama, bere seme zaharrena bizi zen Aundietxetikira joan eta handik bi urtera hil zen, 1913ko ekainean, 78 urterekin.

Migel Imazen haurtzarora ikertzea oso zaila da. Bere lehen ikasketak, San Martingo eskola publikoetan, Elizari erantsitako eraikuntzan, gaur egun Oargi eta Haurkide elkarteak dauden lokaletan egin zituen. Urte haietan, mutilek eta neskek bereiztutako irakaskuntza jasotzen zuten. Ataungo Udalak bere gain hartzen zituen klaseak emateko lokalen alokairua eta beste gastu batzuek⁸. Horrez

⁸ Ataungo Udala: Akta-Liburuak L-8, L-9, L-10

Azterketa Historiko-Biografikoa

gain, probintzia mailan irakasleen soldatak ordaintzeko zegoen fondo batean (Caja Especial de Fondos de Primera Enseñanza) hiruhilabetero diru-kopuru bat ordaintzen zuen. 1887-1888 ikasturtean, 2.337 pezeta ordaindu zituen Udalak. Aiako neska-mutilen irakaskuntzaren arduraduna Jose Franzisko Barandiaran erretorea zen; San Gregorion, nesken eta mutilen irakaskuntza bereiztuta zegoen, eta mutilen irakaslea Manuel Arrese Imaz zen, handik urte batzutara, On Joxe Miel Barandiaranen lehen irakaslea izan zena⁹. San Martinen, 1878 inguruan, nesken irakaskuntzaren arduraduna Francisca Larrañaga anderea zen bitartean, mutilen irakaslea Pedro Maria Aranceta zen, Urnietako eskola utzi eta Atauna etorritakoa urte horretan. Hau izango zen, itxura denez, Migel Imazen lehen irakaslea. Handik urte batzutara, 1885 inguruan, beste irakasle bat etorri zen San Martingo eskola publikoko arduradun berri bezala, Bernardo Chantal gaztelarra.

Garai haietako etxe gehienetan bezalaxe, Estrada berrin ere aho asko zegoen jaten emateko. Hamabi edo hamalau urterekin herriko harrobi batean hasi zen harginaren lanbidea ikasten. Garai hartan, herrian bi edo hiru harrobi zeuden irekita: Arrateta, Urkuola eta Lizarrustikoa¹⁰. Handik urte batzutara, 1890ean, Donostiara joan zen lanera, eta lan egiteaz gain, 1879an sorturiko Arte eta Lanbide Eskolan (Escuela de Artes y Oficios delakoan) algebra, matematikak eta marrazketa ikasketak jasotzera.



Imaz Apalategi senideak, 1916 inguruko argazkian; ezkerretik eskubira, Eusebia, Migel, Doroteo, Maria eta Seberiano.

⁹ Barandiaran Irizar, Luis de: "Jose Miguel de Barandiaran: Patriarca de la cultura vasca", Donostia, 1976

¹⁰ Arin Dorronsoro, Juan. "Establecimientos humanos y toponimia: Toponimia del pueblo de Ataun"; Anuario de Eusko-Folklore, Tomo VIII, 1928, 42.orr.

Garai hartako ataungo herriaren egoerari buruz, esan behar da, Beasaindik Nafarroara zihoan bidea Erroiondoraino egin zela lehen saioan (II. Guda Karlistaren ondorioz) eta 1883-84 urteetan zehar burutu zela¹¹, errepide honen jarraipena, Liza-rrusti mendatearen gaineraino. Herriko errementariak, Elbarrena, Aundietxe txiki, Lizarmuntegi eta Estrada berriko Plácido Gil barne, urte haietan lan ugari izan zutela pentsa daiteke, lanabesak egin eta konpontzen.

1.3. Escuela de Artes y Oficios (Arte eta Lanbide Eskola)

Lehen aipatzen genuen bezala, Donostia izugarrizko zabalkundea ezagutzen ari zen. 1864ean, harresiak bota ondoren, hiria zabaltzen hasi zen (Amara, Gros, Antigua, etab.). Egoera horretan, 1890 inguruan, Ataun utzita Donostiara joan zen hargin moduan. Ez dago oso garbi non eta zein lanetan aritu zen. Garbi dagoen bakarra da, eguneroko lana bete ondoren, Donostiako “Escuela de Artes y Oficios” delakora joaten zela ilunabarrean, aritmetika, algebra, marrazketa eta beste hainbat ikasgaietan trebatzea (handik urte batzutara, 1920.hamarkadan, bere hilobari, Seberianoren semea zen Kreszenziori, ikasketak ordainduko zizkion; hau ere lanbide berdinekoa zen, hargina).

Donostiako ikastetxe berezi hau 1879an sortu zen Udalaren babesarekin eta aurreneko ikasturtea, 1879-80koa, Andia kalean zegoen zentruan egin zen. Ikastetxe honen helburu nagusia, Donostian lanean ziharduen hainbat gazte eta helduri euren lanbidetan mailaz igo eta ezagupen teknikoak ikasteko aukera ematea zen. Eta antzeko gehiago ere sortu ziren Espainiako estatuan zehar. Noski, gaueko ordutegiarekin funtzionatzen zuten, arratsaldeko zazpi eta erdie-tatik gaueko bederatzi eta erdietara, ikasleek lanetik irten eta gero klaseak jaso ahal izateko. Ikasleak hiru adin taldetan banatzen ziren: 12-15 urte bitartekoak, 15-20 urte bitartekoak eta 20 urtetik gorakoak.

Bere sorreratik, ikastetxe honetan ematen ziren ikasketak hiru sailetan banaturik zeuden: Industria eta eraikuntza arteak, Arte ederrak eta Merkataritza ikasketak. Ikasketa hauez gain, emakumezkoentzako sail berezi bat sortu zen, jostkuntza, kontabilitatea eta beste hainbat gauza irakasten zirelarik¹².

Miguel Imaz, 1890-91 ikasturtean hasi zen Industria eta Eraikuntza Arteetako sailean ikasten hamazazpi urterekin. Nicolas de Bustinduy y Vergara industri injinerua zen ikastetxe honetako zuzendaria. Ordurako Donostian lanean hasita zegoen eta arratsaldeko azken orduak Andia kaleko ikastetxean ematen zituen bere nagusiek bidalita. Ikasketak hiru ikasturteetan banatzen ziren eta irakasten ziren irakasgaiak honako hauek ziren:

1. Ikasturtea: Aritmetika eta Marrazketa lineala.
2. Ikasturtea: Algebra, Geometria eta Marrazketa profesionala.
3. Ikasturtea: Mekanika, Fisika, Kimika eta Marrazketa profesionala.

¹¹ “Ataun” ; Donostiako Aurrezki Kutxa, Donostia, 1878, 44. Orr.

¹² Mendiola Querejeta, Rufino, “La vida cultural en San Sebastián: anotaciones histórico-retrospectivas”, Ayuntamiento de San Sebastián, 1963, 44. Orr.

“Artes y Oficios” eskola honetan, hiru edo lau urte egin zituen Migel Imazek. Urte horietan hargintzan ikasteaz gain, lehenago aipatutako irakasgaiak ikasten aritu zen. Ikasle ona zen, eta horren froga, zenbait sari jaso zituela aritmetikan, marrazketa linealean, algebran eta geometrian, eskolak ikasturte bakoitzean ateratako memoriarian ikusi daitekenez¹³.

1890-1891 ikasturteari buruzko liburutik ateratako zati honetan, Migel Imaz ikasle bikaina zela ikus daiteke. Hori horrela, Aritmetika-ko ikasgaiean (Asignatura) lortutako lehen sariagatik, bere lanbidean aritzeko beharrezkoak izango zitzaizkion lanabesak eman zioten opari bezala, hau da, hargintzarako lanabesak (zinzalak, e.a). Bestalde, Marrazketa linealean lortutako bigarren sariagatik, Ohorezko matrikula, hurrengo ikasturterako ikasgai berean doan matrikulatzeko aukera izan zuen.

Arte eta Lanbide eskolan hiru ikasturte igaro ondoren , arduradun edo enkargatu moduan jarri omen zuten bere nagusiek, balio eta jakinduri handiko mutila zela konturatu baitziren.

Lanean eman zituen lehen urratsak, ezagutzen ditugunak, eta bere konpainia sortu zueneko kontuak beste atal batean azalduko ditut.



1890-91 Ikasturteko ikasle sarituak, hauen artean Migel Imaz zegoelarik

¹³ Donostiako Udal Artxiboa. Sekzioa B, negoziaketa 11. Seriea IV. 554. Liburua. “Escuelas especiales: Artes y Oficios”.

1.4. Migel Imazen bizitza

Donostian eman zituen lehen urteak, 1890tik 1900 arte, ikasten eta lanean ziharduen bitartean, apopilo moduan egon zen diru pixka bat egin zuen arte. 1900 inguruan, Fuenterrabia kalean, 29. zenbakiko 4. solairuko etxebizitza batean bizi zen.

Bere lehen ezkontza, 1903ko azaroaren hogeita bostean ospatu zen¹⁴ Donostiako Artzai onaren elizan. Berak 30 urte zituen, eta neskak, jaiotzez arrasatearra zen Maria Gorosabel Elgarrestak, 29. Imaz-Gorosabel senar emazteak, lehenago aipatutako Fuenterrabia kaleko 29. zenbakiko 4. solairuko etxebizitza horretan bizi izan ziren, Maria Modesta Imaz, Migelen arrebarekin batera. Baina 1912ko maiatzaren 28an, Maria emaztea hil egin zen, anemia gaixotasunak jota. Ezkonduta egon ziren ia hamar urte horietan, seme-alabarik ez zuten izan.

Handik hiru urtera, bere kaleko denda batean lan egiten zuen neska bat ezagutu eta berarekin ezkondu zen handik hilabete batzutara, 1916ko urtarrilaren 8an, Lezoko Kristo Santuaren elizan¹⁵, Lezoko Presbiteroa zen Jose Antonio Mendia ataundarrak ezkondu zituelarik (Migel Imazen anaia, Aundietxetikiko Doroteoren koinatua). Migel Imazek 42 urte zituen, eta ordurako ospe handiko kontratista eta Donostia hiriko pertsonaia ezaguna zen.



Migel Imaz eta Julia Ordoño

¹⁴ Donostiako Erregistro Zibila : 2. Sekzioa, 22. Lib., 58 folioa, 22. Tomoa.

¹⁵ Lezoko Erregistro Zibila : 2. Sekzioa, 10Lib., 2192 folioa, 10. Tomoa.

Azterketa Historiko-Biografikoa


Emaztea, 33 urteko Raimunda Julia Ordoño y Gómez zen, Zaragozan jaioa (1882an). Bere aita, Leocadio Ordoño, ejertzitutik erretiratutako Kapitaina zen eta Donostiara etorria 1890ko hamarkadan, non ontziteria eta altzari denda bat ipini zuen. Denda honetan lana egiten zuela ezagutu ziren Migel eta Julia. Imaz-Ordoño senar-emazteak, Txurruka kalean, 4.zenbakian, 3. solairuko etxebizitza batean jarri ziren bizitzen.

Etxebizitza honetan bertan, Juliaren bi ahizpa eta neskame lanean aritu zen Migel Imazen hiloba, Bittori (bere anaia Seberianoren alaba) bizi izan ziren. Seme bat izan zuen bikoteak, baina jaio eta zortzi egunera hil omen zen (entzundakoaren arabera, hortz batekin edo ahosabairik gabe jaio omen zen).

Migel Imaz 1925ean hil zen eta bere heriotzari buruzko gorabeherak beste atal batean zabalago azalduko ditut. Emaztea, 1963ko urriaren leian hil zen 81 urterekin, eta Migel Imaz aurkitzen den panteoi berdinean lurperatu zuten (Ordoño y Gómez familiaren panteoian). Juliaren bi ahizpak eta Bittori (1972an hildakoa) panteoi berean daude.



Migel Imaz lurperatuta dagoen hilobia Polloeko hilerrian



Donostia 1900 inguruan. Planoan ikus daitekenez, Gros auzoa gaur ezagutzen dugunarengandik oso urrun dago (Eraikitako esparrua gaur egungo Kolon Etorbiderainokoa zen)

2. MIGEL IMAZEN LANAK

2.1. Donostia: XIX. mende bukaera eta XX.mende hasierako hazkundera¹⁶

Garai honetan Donostiak ezagutu zuen hazkundera azaltzen eta honetarako arrazoiak agertzen saiatu behar naiz atal honetan. 1863an, Donostia hiriko harresiak bota ziren, eta urrats honekin Donostia modernoaren garapena hasten dela esan daiteke, egiazko hedapenaren hasiera. Hurrengo urtean, 1864ean iritsi zen trenbidea Donostiara. Donostia hiri turistiko edo merkatal hiri bihurtzeko momentu erabakiorrean aurkitzen zen.

XIX. mendearen bukaeran, Isabel II eta gero Alfonso XII Erregeek, Donostia eta bere hondartzak modan ipini zituzten Espainiako aberats eta nobleen artean¹⁷. Lehen aipatutako trenari esker, udatiarren hiri eta modako hiri bihurtu zen Donostia - erret familiaren eta bere gortearen presentzia gogoratu besterik ez dago - (Miramar Jauregia 1893an eraiki zen). Atzerriko eta espainiar estatuko hainbat aberats eta noble Donostiara etortzen hasi ziren uda garaian, euren familia eta guzti. Udatiar hauen presentziak, Europako edozein hiri turistikoko zerbitzuak eskaintzera behartu zuen Donostia, hala nola hondartzak, bainu-etxeak, kasinoak, etab. Bestalde, atzerriko kapitala erakarri zuen hiriak eta hori horrela, 1890-1915 urte bitartean Donostian eraiki eta sortu ziren hainbat enpresen jatorria atzerritarra zen.

Hirigintzaren ikuspegitik, harresien desagertzearen ondoren, Kortazar arkitektuak hedapen proiektu bat diseinatu zuen hirirako. Boulebarra, alderdi-ederreko enparantza, erdialdea, Gipuzkoako enparantza, proiektu horren ondorioz sortu ziren. Geroxeago, Donostia ekialdera eta mendebaldera zabaldu beharra zegoela ikusi zen. Horrela hasiera eman zitzaion Groseko zabalduari, zein beste atal batean zabalago azaltzen saiatuko naizen.

2.2. “Miguel Imaz y Sociedad”

Ez dago oso garbi noiztik hasi zen Migel Imaz kontratista moduan. Dirudienez, 1900-1905 bitartean hasi zen bere kontura bere lanbide berdineko lagun batzuekin. San Bartolomen muinoko desmote edo ebaketa lanak era horretan egin zituen, baina 1911ko urtarrilaren 24ean, Luis Berrueta notariaren aurrean, elkarte bat osatu zuten, eta 1916ko urtarrilaren 3an, Donostiako Erregistro Merkantilean aurkeztu zituzten elkarte honen estatutuak eta gaineratiko dokumentazioa¹⁸.

Elkarte honetako partaideak Migel Imaz (kontratista), Jose Maria Altuna, Jose Garmendia eta Francisco Goenaga harginak ziren. Azkeneko hau Miguel

¹⁶ Donostia-San Sebastián : Hiria ; bizia, paisaia, sinboloak. Sendoa, Oiartzun, 1994

¹⁷ Sada, Javier y Asier : Historia de San Sebastián. Txertoa, Donostia, 1995

¹⁸ Registro Mercantil de Guipúzcoa. 1916. N° de orden de inscripción, 1. Hoja 1071

Imazen arrebarekin (María Modesta) ezkondurik zegoen. Elkartearen estatutuei dagokienez, hamar artikuluko zituzten eta azpimarra daitezkeen alderdi garrantzitsuenak aipatuko ditut: kapitalaren (20.000 pezeta.) banaketari dagokionean, %30a Migel Imazek jarritakoa eta gainerako %70a beste hiru sozioen artean jarritakoa. Administrazio eta gerentzia lanen ardura Migel Imazi zegokion eta elkarte honek egingo zituen ordainketa, kobraketa eta beste edozein motatako eragiketa Migel Imazi baino ez zegozkion.

Elkarte hau, Migel Imaz hil ondoren deuseztu egin zen¹⁹ eta bere bazkideak izan ziren Goenaga, Garmendia, Altuna, bere arreba Maria Imaz eta bere alarguna Julia Ordoñoren artean banatu zituzten ondasunak eta kapitalak, adiskide bezala amaituz merkatal erlazio hau.

2.3. Migel Imazen hasierako lehen lan ezagunak: San Bartolomeko muinoa eta Pasealeku berria

Ez daukagu datu garbirik Migel Imazen hasierako lanei buruz, baina kontratista moduan 1900-1905 bitartean hasi zela kalkulatu dugu. Bere lehen lanak Gros auzoan eta Donostiako beste zenbait lekutan kokatu ziren, baina bere lehen lan ezaguna, Donostiako Udalaren enkar-guz egina, San Bartolomeko muinoaren ebaketa izan zen. 1908-1915 bitartean egin ziren lan hauek. San Martin Kaletik abiatzen zen Easo kalea luzatzeko mendia ebaki zen gaur egungo Amara berri-
ra, horrela hiriari beste irten-bide bat ematen zitzaiolarik.

Azken urte hauetan, gai honen inguruan eztabaida berri bat piztu da proiektu baten inguruan. Proiektu honen arabera, muino hori erabat moztea nahi da eta bertan etxe berriak eraiki, Easo kalearen altueran.



San Bartolome muinoaren ikuspegia

¹⁹ Registro Mercantil de Guipúzcoa : 1925-06-22

Horrez gain, 1916-1919 bitartean Urgull mendiaren magalean eta itsasertzean “Principe de Asturias Pasealekua”, gaur egun Pasealeku berria edo Paseo Nuevo bezala ezagutzen dena, zabaltzeko egin ziren lanetan Migel Imazen elkar-teak, “Miguel Imaz y Compañía” delakoak parte hartu omen zuen, hain zuzen pasealekua babesteko eraiki zen hormaren egiturapenean eta, batez ere, itsasoko olatuen indarrarengandik horma hori babesteko itsasertzean ipini ziren harrizta-rrak harrobietatik orain dauden lekura eramaten.

Francisco Urcola arkitektu gaztearekin oso harreman estua izan zuela esan daiteke. Erlazio horren adibide gisa, 1905ean Hondarrabi kaleko 48. eta 50. zen-bakietako etxebizitzetan egindako lehen lanak dauzkagu. Elkarkidetzaz horrek urte batzuk geroxeago ere bere fruituak emanaz jarraitu zuen, eta horren lekuko, horra hor Victoria Eugenia antzokia eta María Cristina Hoteleko lanak.

2.4. María Cristina Hotela eta Victoria Eugenia Antzokia (1910-1912)

San Bartolome muinoaren ebaketa / mozketa lanak amaitzearekin batera, Donostian garrantzia eta eragin arkitektoniko nabarmena izango zuten eraikuntza lanetan parte hartzea egokitu zitzaion Migel Imazi. Eraikuntza hauekin, Donostia Europako hiri turistiko garrantzitsuenen pare jarri zen, zerbitzuei dago-kienez. Proiektu hauen bultzatzaile eta eragile, Donostian, 1902an bertako kapi-talarekin osatu zen “Sociedad Anónima de Fomento de San Sebastián” elkarteak izan zen.

Elkarte honen helburu nagusia bere sorreratik, antzoki eder eta luxuz beteriko hotel bat eraikitzea izan zen²⁰. Hasiera batean, hotela Miramar kalea eta Kontxako pasealekuaren artean eta antzokia orain dagoen lekuan kokatzea pentsatu zuten. Udalaren erantzuna ezezkoa izan zenez (batez ere, Donostiako jabe-dun aberatsenen aldetik), hotelaren kokalekua aldatu beharra izan zuten eta gaur egungoa aukeratzea beste biderik ez zitzaien geratu. Udalak “Sociedad de Fomento” delakoak aurkezturiko proiektua onartu zuen 1903an, bereak zituen ia 10.000 metro karratu emateko prest agertu zelarik.

Baina azken baimena, Estatuko Administrazioarena, ez zen iritsi 1908ko urtarrilerarte²¹. Aurreko urteetan, Okendo eta Camino kaleetako zenbait jabe-
k sartutako errekurtsioen ondorioz, proiektu hauek martxan jartzeko prozesua gel-diaraztea lortu zuten. Urte bereko maiatzaren 29an izenpetu zen Donostiako Udala eta elkartearen arteko kontratua eta handik gutxira proiektuen lehiaketa iragarri zen.

1908an ireki zen proiektuen lehiaketa, baina antzokiarena Donostiako arki-
tektuei bakarrik zuzenduta zegoen. Urte bat geroago, “Sociedad de Fomento”

²⁰ Anabitarte, Baldomero : “Gestión del Municipio de San Sebastian (1901-1925)”. Donostia, 1971

²¹ Rodríguez Sorondo. M^a del Carmen : “Arquitectura pública en la ciudad de San Sebastián (1813-1922). Donostia, 1985

elkartek erabaki zuen lehiaketako irabazlea: antzokiarena, Francisco Urcola donostiarrak irabazi zuen, eta hotelaren proiektua Charles Mewes frantziarrari enkargatu zioten. 1910ean kontratu berri bat sinatu zuten Udalak eta elkarteak, bi eraikuntza hauei hasiera emanaz.

Miguel Imaz Francisco Urcola arkitektuaren laguna izateaz gain, “Sociedad de Fomento” elkartean sarturik zegoen, akzionista modura. Hotela eta antzokiko lanak esleitzeko inongo enkanterik egin ez zenez, “Miguel Imaz y Cia.” eraikuntza elkarteak lortu zituen M^a Cristinako lanik garrantzitsuenak²².

Hotelaren arkitektua Charles Mewes frantziarra izan zen (Paris, Londres eta Madrileko Ritz Hotelen arkitektua), baina lanen zuzendaritza Urcola arkitektuari enkargatu zion elkarteak. Hotelaren estiloa, Europako Hotel garrantzitsuenen parekoa da, eklektizismoa. Antzokia berriz, Espainiar estatuan nagusi zen estiloari jarraituz diseinatu zuen Urcolak, Neoplatereskoa. Gerorako aipatuko dudana bezala, antzokian ez bezala, Hotelaren eraikuntzan ez zen erabili hormigoia armatua, baizik eta egurra estalkientzako eta burdina zutabeen eraikuntzarako. Aurrealdeetan, antzokian bezala, hareharria erabili zen eta barruko eskailera eta saloietarako, marmola.

Kontuan hartu behar da, aurreikusita zegoen gastua 1.600.000 pezetakoa izan arren (1910ean), lanei amaiera ematerako garaian egindako gastuen zerrenda zehaztuaren arabera, 1.780.400,64 pezeta gastatu zirela M^a Cristina Hotelaren eraikuntzan. Hondeaketa eta zimenduak jartzeko lanagatik, 95.495,65 pezetako faktura pasatu zion elkarteari. Bestalde, hargintza, harri-horma lana eta igeltseritza lanagatik, 430.934,95 pezeta.




M^a Cristina Hotela

Azterketa Historiko-Biografikoa

Victoria Eugenia antzokiaren lanetan ere parte hartu zuen Migel Imazek, baina neurri txikiagoan, hotelarekin konparatuz gero. Alfonso XIII Erregearen amaren omenez ipini zitzaion izena, eta 1912ko uztailaren 20an eskaini zituen bere lehen emanaldiak. Lan honen azken kostua, miloi bat pezeta ingurukoa izan zen eta gaur egun, Donostia hiriko antzokirik garrantzitsuena izaten jarraitzen du.

Europako eraikuntza publikoetan nagusitzen ari zen hormigoï armatua erabili zen zimendura lanetan, material honek burdinarekiko eskaintzen zituen abantailak kontuan hartuz (suaren aurkako erresistentzia, iraupena, etab.). Antzokiaren aurrealdeei dagokienez, Igeldoko harrobietatik ateratako hareharria erabili zen, lurren antzinako jabeak lursailen salmenta kontratuan ipinitako baldintza bat beteaz.



Victoria Eugenia antzokiaren plano (1909): Francisco Urcola arkitektua

2.5. Justiziako Jauregia (1912-1916)

Justiziako Jauregiaren eraikuntza, José Gurruchaga arkitektuak buruturiko proiektuaren arabera, 1916ko apirilean amaitu zen, gorabehera ugariren ondoren²³.

1890ean Donostiako Udalak, Justizia Jauregi berri baten beharra azaldu zion Justizia Ministeritzari, eta horretarako alde zaharrea zeuden lur-sail batzuk (antzinako presondegia zegoen lur-saila) aurreikusten zituen egokienak bezala. Asmo hauek hutsean geratu ziren, batetik Justizia Ministeritzaren utzikeriagatik, eta bestetik, Donostiako Udalak ez zuelako behar adina dirurik proiektu honetan gastatzeko.

²³ Rodríguez Sorondo, M^a del Carmen, "Arquitectura pública en la ciudad de San Sebastián (1813-1922)", Donostia, 1985 (174-185 orr.)

1898an, Justiziako epaitegien egoera txarra ikusi ondoren, Udalak, Jauregi berri baten beharra azpimarratu zuen eta lur-sail berri batzuk gordetzea erabaki zuen Amarako zabalduran, gaur egun Artzai Ona elizaren aurrealdean (Urbietan eta Fuenterrabia kaleen artean). Kokaleku berriaren proposamena onartu eta desjabetze prozesuari hasiera eman zitzaion. 1902an, Proiektu lehiaketa bat ireki zuen Jauregi berriaren eraikuntza aurrera eramateko arduratzen zen komisioak. Hiru urte geroago, eztabaida askoren ondoren, komisioak lehiaketa hutsik uztea erabaki zuen, aurkeztu ziren proiektuak behar adinako kalitaterik ez zutela esanez. Jauregi berriarentzako gorde ziren lur-sailak, urte batzuk geroago, “Artes y Oficios” eskola berriarentzako erabili ziren eta 1908an hartu zen erabakia, gaur egun “Correos y Telégrafos” deitzen den eraikuntza²⁴, Koldo Mitxelena Kulturunearen alboan, eraikitzeko.

Azkenik, Jauregi berri baten beharra piztu ondoren, 1909an, behin-betiko kokalekua erabaki zuen Udalak; hau da, San Martin eta San Bartolome kaleen arteko lursaila, 42. etxadia. Etxadiaren jabea Udala bera zen eta kokagunearen abantailak kontuan hartu ziren (Donostiako kale nagusienetako batean kokatzea, San Martin kalean; Donostiako ekialdea eta mendebaldea lotzen zituen kalerik nagusienean) eta era honetan, San Martin auzoko zabaldura hobetzea lortuko zen.

1910ean, udal arkitektoa zen J.R.. Alday jaunak, proiektu lehiaketaren oinarriak eta baldintzak prestatu zituen, 600.000 pezetakoa izanik gastatu zitekeen gehieneko kopurua. Gipuzkoako Aldundia gastuen % 25ean laguntzeko prest agertu zen, eta erabakia hartuko zuen komisioa osatu zen. Espainiar estatuko arkitektoen proiektuak aurkeztu ziren, baina azkenean, 1911ko otsailean, José Gurruchaga arkitekto donostiarraren proiektua eman zuten irabazletzat.

Gurruchagak proiektuaren defentsan aipatzen zuen moduan, gaur egungo justiziako instituzioa eta bertan erabiltzen diren terminoak eta legeak erromatar zuzenbidean oinarriturik daudenez, bere eraikuntzari greko-erromatar estiloa zegokiola erabaki zuen²⁵. Justiziaren bereizgarri garrantzitsuenak zuzentasuna eta zorrotasuna direnez, eraikuntzako basamentuak, zutabeak, etab., klasikoak dira eta lerro zuzenak nagusituko dira, lerro kurbatuak eta arkuak baztertuz (mugimendua adierazten duten elementu arkitektonikoak).

1912ko otsailean, obren enkantea egin zen eta hiru proposamen aurkeztu ziren. Miguel Imaz Apalategiaren proposamena (560.000 pta.) onartu zen, nahiz eta Viguri anaien proposamena merkeagoa izan (527.000 pta.)²⁶. José Gurruchaga arkitektoak aurkezturiko kontratista izateak eta Viguri anaien proposamenak akats batzuk zituenez, berari eman zioten obrak aurrera eramateko ardura. Gaur egun horrelako lan bat egitea mila milioi baino gehiago kostatuko litzateke.

²⁴ Anabitarte, Baldomero, “Gestión del municipio de San Sebastián (1901-1925)”, San Sebastián, 1971, (117-120 orr.).

²⁵ Rodríguez Sorondo : “Arquitectura pública en la ciudad de San Sebastián” Donostia, 1985, 180. Orr.

²⁶ Donostiako Udal Artxiboa. 10. Negoziatua, Eraikuntza Publikoak, XIV Seriea, D Sekzioa, Obrak.

Baina, erreklamazio ugariaren ondoren, 1912ko martxoan, Jauregi berria eraikitzeko ardura zuen Komisioak Viguri anaien proposamena onartu zuen, 527.108 pezetan egiteko konpromezuarekin. Ondoren, Migel Imazek, bere tanto-eskubideari kasu eginez eta 48 orduko epe barruan, Viguri anaiek aurreikusitako kantitatean egingo zuela hitz eman eta berriz ere berari eman zitzaion obrak aurrera eramateako ardura, martxoaren 12an..

1912ko maiatzaren 17an ospatu zen, Udal agintari, Aldundia, Eliz-agintari eta Grazia eta Justiziako Ministroaren etorrerarekin, Justizia Jauregi berriaren lehen harria jartzearen ekitaldia, nahiz eta bi hilabete aurretik hasita egon hondeaketa-lanak.

Ordurako, hormigoi armatuaren erabilpena oso eskasa zen Espainiako eraikuntzetan eta burdinaren eskaria ugaria. Migel Imazek bere abantailak ezagutzen zituen eta batez ere, burdinaren zain denbora asko egon beharrak, 1912ko azaroan burdinezko zoruak, hormigoi armatuzko zoruengatik ordezkatzeko eskaera egitera behartu zuen. Abantaila nagusien artean, bere iraupena, mantentimendurako eskeintzen zituen erraztasunak eta suaren aurkako erresistentzia sartzen ziren. Hormigoi armatua ipini zen eta material honen erresistentzi frogetan emaitza ezin hobekak lortu ziren.

1915eko uztailen, Jauregi berriaren obrak erabat amaitutzat eman ziren, barruko dekorazio lana eta zenbait materiale falta arren (Belgikako arbela eta beiratea) I. Munduko gerraren eraginez. *A z k e n i k*, Gurruchaga arkitektoak aurkeztutako altzari eredua errespetatuz, altzariz hornitu zen jauregia eta 1917ko irailean martxan jarri ziren justiziako bulegoak.



Justizia Jauregia

Ordurako, Migel Imaz kontratista, nolabaiteko ospea irabazita zegoen Donostiako hirian, eta Justizi jauregiaren eraikuntza lanak, hau da, hain eder eta hain garrantzi handiko obra zibil baten eraikuntzak, sendotu egin zuen bere izena eta ospea Donostiako gizartean. Hauek izango ziren, banketxeei kredituak eskatzerakoan, abalik onenak.

2.6. Kursaal eta Gros auzoko zabaldura: “Sociedad Inmobiliaria del Gran Kursaal Marítimo de San Sebastián” elkartearen osaketa

Groseko zabaldura deiturikoa, aintzinako hareatza batzuen gainean kokatu zen, non XIX. mende amaieran tailer eta industria txiki batzuk besterik ez zeuden. Proiektu berezi hau, hasieratik ekimen ez publikoa izan zen eta horren asmoa, besterik gabe, lurzoru urbanizagarria ahalik eta gehien errentabilizatzea zen²⁷.

“Sociedad del Gran Kursaal” elkarte, proiektu honetan oinarritu zen bere eraikuntza guztiak egiteko garaian. Hasierako proiektuan lorategi-hiri bateko populaketa aurriztuz zen gune horretarako, baina zenbait aldaketa jasan ondoren, zabaldura luzatu egin zen eta 1973an desagertutako kasinoak bakarrik iraun zuen hastapeneko proiektutik.

Urumea ibaia itsasoratzen den gunean, ibaiaren ezkeraldetik, hau da, Sta. Catalinako zubitik gaur egungo Pasealeku Berrirainoko tarte hori XIX. mendearen bukaeran eginda zegoen, baina ibaiaren eskubialdea (inolako defentsarik gabe) itsasoko olatu indartsuen menpe aurkitzen zen. Derrigorrezkoa eta beharrezkoa gertatu zen lehendabizi luzera eta erresistentzia handiko eustorma baten eraikuntza, ondoren egin ziren Zurriolako zubia eta Kursaal kasinoak eraikitzeke.

Lehen saiakera, 1907-1909 urteetan egin zen. Ibaiaren eskubialdean eustorma edo dike bat eraiki zen eta horri esker, itsasoari ia 12.000 metro karratuko lur-eremua irabazi zitzaion. Udalaren asmoa lur horietan Europako hiri turistikotan modan ipintzen ari ziren Kursaal edo “Centro recreativo” bat eraikitzea zen, eta lan horien ardura ematen zitzaion enpresak zubia eta eustorma bat eraikitzeke konpromezua hartu behar zuen²⁸.

D.L. Vogel ingelesa izan zen 1909an Udalaren kontzesioa lortu zuena itsasoari irabazitako lur horien gain. Baina bere proiektua alde batera utzi ondoren, Parisko hiru kapitalistek lortu zuten Kursaalaren kontzesioa, Leon Malleville buru zutela. 1911ko otsailean sinatu zen Udala eta hiru frantziar hauek osatutako elkartearen arteko kontratua : Donostiako Udalak, 12.000 metro karratu zabalera lursail bat ematen zuen Kursaal berri horren eraikuntzarako (Kursaala eraikitzen zutenak behin-betiko jabe bihurtzen ziren). Bestalde, kontzesiodunak derrigorputa zeuden kostaldeko hormak (aurrekoak sendotu eta horma berriak eraiki itsasoak aurrez-aurre jotzen zuen unean) eta zubi berri bat eraikitzeke (Lan hauek amaitu ondoren, Udalaren jabetzara pasatuko ziren automatikoki). Baldintza horien truke, Udalak, kontzesiodunei Gros auzoko ia 6.000 metro karratuko lursail bat emateko konpromezua hartu zuen, baina lur hauetan, interes orokorreko etxeak baino eraikitzerik ez zegoen (eskolak, merkatuak, hotelak, etab.).

²⁷ Donostia – San Sebastián : Hiria, paisaia, sinboloak. Sendoa, Oiartzun, 1994

²⁸ Anabitarte, Baldomero : “Gestión Municipal de San Sebastián (1900-1925)” Donostia, 1971

Azterketa Historiko-Biografikoa

1911ko martxoan Leon Mallevillek bere kontzesioa eta eskubide guztiak osatu berria zen “Sociedad Inmobiliaria y del Gran Kursaal Marítimo de San Sebastián” elkarteari eman zizkion. Horrela, hil berean hasi ziren zabalduraren lehen lanak. 1917 arte, elkarte honen akzioak, alde batetik atzerriko kapitalaren esku egoteagatik (gehienbat frantziarra) eta I. Munduko gerratearen eraginez, eragozpen haundiak ekarri zituen lan hauen amaierarako.

Urumea ibaiaren bideratze lanak, Eugenio Ribera injineruak proiektatu zituen. Sta. Catalinako zubitik gaur egun Zurriolako zubia dagoen punturaino, 300 metro luzerako horma bat eraiki behar zen, eta lan horiek egiteko ardura Vicente Mendizabal eta Migel Imaz kontratistei eman zitzaizkien. 1913 hasieran amaitu ziren lanak eta bigarren zatia eman zitzaion hasiera hau da, gaur egungo Zurriolako zubitik itsasoaldera 150 metro luzerako eustorma baten eraikuntza lanei. Proiektuaren ardura E. Bartissol injineru frantziarrari eman zioten (Salonikako portuaren egilea eta Lesseps, Suezko kanal famatuko injineruaren laguntzailea)²⁹. Lan hauetarako, Migel Imazek 424.000 pezetako aurrekontua aurkeztu zuen, baina elkarteak Bartzelonako eraikuntza elkarte bati eman zion lanaren egitekoa (337.000 pezetako aurrekontua).

Kostaldekoko hormaren lanek atzerapen handia jasan behar izan zuten : batetik, Europako gerragatik (elkartearen kapital gehiengoa frantziarra zen eta lan haue-tako langileak ere bai ; gerra piztu zenean, langile gehienak gerra egitera deituak izan ziren), eta bestetik, 1916an Bartissol injinerua hil zela kontutan harturik³⁰, lana egitearen ardura hartu zuen enpresako langileek aldegin beharrean gertatu zirelako, material faltagatik edo itsasoaren indarragatik (ia 20 tonako sei harri-tzar bota zituen 1916ko maiatzaren 15eko ekaitzak, horma erabat amaitzeko 16 metro falta zirela)³¹.



Zurriolako hondartza (1910)

²⁹ Rodríguez Sorondo : “Arquitectura pública en la ciudad de San Sebastián”, Donostia, 1985 (126-140 orr.)

³⁰ Sada, J.M. “Historia de los Casinos de S.S.” : Donostia, 1990, 217 orr.

³¹ Rodríguez Sorondo : aipatutako liburua

1917tik aurrera, elkartearen akzio gehiengoa donostiarren eskutara pasatzen denean (hauen artean Migel Imaz), ondorengo obrak egingo dira bata bestearen atzetik: Zurriolako zubia, kursaala, etab.

Horma horien eraikuntzak beste ondorio bat ekarri zuen Gros auzoko paisaiari dagokionez : Zurriolako hondartza ia erabat desagertu egin zen. Batetik, eustorma ikaragarri horren eraikuntzagatik (itsasbaterrean gelditzen zen hondarra itsasoko olatuek eramaten zuten) eta bestetik, Udalak, Zurriolako hondartzan hondarra ateratzen jarraitzen zuelako. Hurrengo orriko argazkian (1910 ingurukoa) ikus daitekenez, Zurriolako hondartza oso handia zen Kursaaaleko eustorma eta Kursaala bera eraiki zen arte. Gaur egun, eustorma luzatu eta hondartzaren luzera eta zabalera berreskuratu dira.

2.7. Migel Imaz “Sociedad Inmobiliaria del Gran Kursaal” elkartean sartzen denean.

Donostiako herritarren artean, kontrako iritzia zen nagusi Kursaaaleko lanen ardura zuen elkarteari dagokionez, bi arrazoi nagusi zirela medio: atzerriko kapitalaren menpe egoteak (Europar ematen ziren gerra, krisialdi eta aldaketen menpe zeuden) eta kapitalaren jatorriak sortzen zuen atzerapena lan hauetan.

1917. urterako, Migel Imazek Donostiako gizartean ondo irabazitako izena izateaz gain, dextenteko kapitala irabazita zegoen hirian zehar egindako hainbat lanen ondorioz. Donostiako merkatal-gizon garrantzitsuenera eraginez, akzionista talde berri bat sartu zen Kursaal elkartearen barruan, eta ia akzio guztiak erosi zituzten, 1917ko martxoan izenpetutako kontratuan azaltzen den bezala³². Talde honetako buru edo gizon nagusienetakoak Manuel Odriozola, J.A. Zulaica eta Migel Imaz jaunak ziren³³, eta urte haietako egunkariek hiru gizon hauen lan egiteko gaitasuna eta zintzotasuna azpimarratzen zuten. Elkartearen kapitala atzerriko eskuetatik bertako eskuetara pasatzeaz gain, Kursaaaleko lanei indar berri bat eman nahi zioten hainbeste urteko atzerapenaren ondoren, Donostiak behar zituen eta beraien ustez merezi zituen eraikuntza horiek egiteko.

Migel Imaz berak zuzendu zuen elkarteko akzioen erosketaren operazioa³⁴, Donostiako merkatal gizon garrantzitsuenera konbentzitu eta behar zen diru kopurua bilduz elkarteko 30.000 akzioak erosi ahal izateko. Erosketa honen kontratua 1917ko martxoaren 20an sinatu zen Parisen Migel Imaz, Manuel Odriozola eta J.A. Zulaica alde batetik eta bestetik, elkarteko administraria, Salomon jaunaren artean. Handik hilabete gutxitara ospatu zen administrazio kontseilu berrian, Migel Imaz eta lehenago aipatutako Odriozola eta Zulaica jaunak sartu ziren, lehendakari bezala Julian Lojendio abokatua onartuz.

³² Rodríguez Sorondo: “Arquitectura pública en la ciudad de San Sebastián”, Donostia, 1985

³³ La Voz de Guipúzcoa, 1917ko martxoak 31

³⁴ Sada, J.M. “Historia de los Casinos de S.S.”, Donostia, 1990, 217-218 orr.

2.8. Zurriolako zubia

Aurreko atal batean azaltzen genuen bezala, “Sociedad Inmobiliaria del Gran Kursaal” elkarteak 1911an Donostiako Udalarengandik jasotako kontzesioak zioenez, derrigortuta zegoen ibaiaren bi aldeak lotuko zituen zubi berri bat eraikitza, Kursaalera zabaldura hiriarekin komunikatuz³⁵.

1915eko martxoan, Elkarteak Eugenio Ribera injineruak eginiko proiektua aurkeztu zion Donostiako Udalari³⁶. Proiektu horren arabera, zubiaren luzera 110 metrotakoa eta hiru arkuz (30 metroko diametroa bakoitzak) osatuta egongo zen; Zubiaren zabalera, errepidea eta oinezkoentzako bidea barne, 20 metrotakoa; Zubiaren zimenduak hormigoi hidraulikoaz egindakoak izango ziren eta 11 metrotako sakontasuna zubiaren zutabe edo pilaren azpian; zutabeak dekoratze-ko erabiliko zen harria, Mutrikoko harrobietatik ateratakoa izango zen; Zubiaren eraikuntzan erabiliko zen material nagusia, hormigoi armatua izango zen eta altzairua armaturak (bobeda edo gangatarako) eta habeetarako erabiliko zen. Orotara, zubi honen eraikuntzaren aurrekontua, 864.682 pezetakoa izango zen.

José Eugenio Ribera Injinerua, Estatuko injinerurik garrantzitsuenetarikoa zen garai hartan. Hormigoi armatuaren lehenengo erabiltzailetarikoa izan zen Espainian, eta material hau erabiltzeaz gain, bera hobetzeko ahaleginak egin zituen, “Ribera” izeneko hormigoi armatua patentatuz, Zurriolako zubian erabiltzeko zena (Hormigoia, metalezko sareekin konbinatuaz)³⁷.

Udalak baimena eman ondoren, Madrileko Sustapen Ministeritzak (Ministerio de Fomento) bere azken baimena eman zion proiektuari 1916ko otsailean, eta handik gutxira lana emateko lehiaketa ireki zen. Lehiaketa hone-



Zurriolako zubia eraikitze lanen garaian (1918)

³⁵ Anabitarte, Baldomero: “Gestión municipal de San Sebastián (1900-1925)”, Donostia, 1971

³⁶ Donostiako Udal Artxiboa. Akta-liburuak

³⁷ Historia de la Arquitectura Española. T.5.: Arquitectura del Siglo XX, del modernismo a 1936. Madrid. pp. 1802-1807

tan, Ribera injineruak zuzenduriko elkarteak, “Construcciones hidráulicas y civiles” delakoak lortu zuen eraikuntzaren ardura, 900.000 pezetako aurrekontua aurkeztu ondoren.

Lehendabiziko proiektu honek porrot egin zuen eta Riberak zuzentzen zuen elkarteak ordezkatu beharra izan zuten. Lanak, 1917ko ekainean hasi ziren, baina hilabete batzuk geroago, itsasoak hondatu egin zuen ordurarte egindako lan guztia (bi tanga hidrauliko ipini ziren zubiaren zutabe edo pilareen lekuetan hormigo armatua sartu ahal izateko). Itsasoko marearen indarraren eragina, itsasotik hain hurbil zegoen zubiarengan izugarria zen. Baldintza horietan arkuz osatutako zubi bat eraikitzea ezinezkoa zela frogatu zuten eta pilare edo zutabe zuzenez ordezkatu behar zela erabaki zuten³⁸.

Elkarteak bere konfidantza osoa eskeini zion Miguel Imazek zuzentzen zuen “Miguel Imaz y Sociedad” elkarteari eta lanen amaierarte, 1921ean, elkarte hau arduratu zen zubiaren eraikuntzaz³⁹. Gogoratu behar da, garai hortan Miguel Imaz “Sociedad inmobiliaria del Gran Kursaal” elkarteko administrazio kontseiluan zegoela eta akzionista garrantzizkotzat jo genezakela.


Ribera injineruak proiektua aldatu egin zuen, zutabeen zenbakia gehituz eta zutabeen aldamenetan, harrieta edo eskoilera lan garrantzitsuak egin beharko ziren zubiaren erresistentzia gehitzeko. Bestalde, zubiari bere pertsonalitatea ematen dien farola esferiko erraldoiak ipintzeko bere onespena eman zuen Udalak 1920ko abuztuan.



Zurriolako zubi inaugurazio egunean (1921-08-14)

³⁸ Rodríguez Sorondo, M^a del Carmen: “Arquitectura pública en la ciudad de San Sebastián”, Donostia, 1985

³⁹ Rev. De la Sociedad Inmobiliaria del Gran Kursaal



Migel Imazi egindako omenaldiaren programa

Garai haietako lanen inguruan sortutako bitxikerien artean, Migel Imazen hiloba batek kontaturikoaren arabera (Ricardo Ordoño), zubiaren erai-kuntza zutabeak altxatzeko fasean zeudela, egun osoa pasatzen omen zuen honek bazkaltzera joan gabe eta lanen martxa gertutik behatuz. Bere koinatu Ricardok (aurrez aipatutako Ricardo Ordoñoren aita) egunero eramaten omen zion saski batean etxean prestaturiko bazkaria eta kable baten bidez bidaltzen omen zion lanean zebilen lekura.

Erresistentzia eta estabilitate frogen emaitza onak ikusirik eta lan guztiak amaitu ondoren, zubiaren inaugurazio ofiziala 1921eko abuztuaren 14an ospatu zen, non elkarteak

Donostiako Udalarari ematen zion zubia. Egundon ospakizun handiak egin ziren zubiaren inaugurazioa zela eta : estropadak, berbenak, su artifizialak, jokuak, etab. Baina ospakizun garrantzitsuena, zubiaren inaugurazioaz gain, Migel Imaz kontratistak eskaini zuen: bazkari bat eman zuen, oraindik amaitzeko zegoen Kurasaaleko areto nagusian. Bazkari hori aprobetxatuz, Gros auzoko “Umore ona” elkarteak omenaldi bat eskeini zion, non, Donostiako agintariek, “Sociedad Inmobiliaria Kursaal” elkarteko bere kideek, eta beste hainbat lagunek parte hartu zutelarik (Argazkian ikus daiteken bezala). Horren froga bezala, gogora ekarriko dugu ospakizun honi buruz egunkariak esandakoa⁴⁰. Zehazki, “Día” egunkariak idatzitakoa:

“Sociedades populares: Umore-ona

La directiva de la muy popular sociedad nos envía la siguiente nota: Ha llegado el día en que a Don Miguel Imaz debe tributarse el homenaje no como se merece, pues las circunstancias de la fecha hacen, que el número de comensales que desean asistir al banquete no puede ser correspondido por la afluencia de forasteros que imposibilitan a los restaurantes un servicio de cubiertos, capaz para corresponder a la demanda de aduladores del simpático Imaz. No consiste solamente en un banquete lo que quieren tributarle a D. Miguel Imaz, sino que además de él y con motivo de la inauguración del puente habrá diversos festejos. La diana por la mañana, la “estropada” que se celebrará después de la bendición de la apertura del puente. El jurado de aquella además de elementos competentes del barrio, estará constituido



Migel Imazi eskainitako bazkariko menua (1921eko abuztuaren 14an)

⁴⁰ La Voz de Guipuzcoa / El Pueblo Vasco

en concepto de Presidente por el gran Quirico, así como los demás festejos que se celebrarán en la desembocadura del Urumea, como son cucañas, patos, etc. Habrá una banda que amenice dichas fiestas, la que con toda solemnidad dará un escogido concierto, después de celebrados aquellos. Por la tarde el aurreku y por la noche la verbena con dos bandas, organillos, gaitas, acordeones y otros instrumentos, juntamente con las churrerías y puestos de refrescos y demás, haran el completo de la magna verbena clásica que los de "Umora Ona" han preparado para que todo San Sebastián se divierta en honor del que mucho más se merece Don Miguel Imaz"⁴¹.



Migel Imazi egindako omenaldiko partaideen argazkia

2.9 Kursaal Kasinoa

1911an Donostiako Udalak eta "Sociedad Inmobiliaria del Gran Kursaal" elkartearen artean egindako kontratuan azaltzen zenez, elkarteak kasino berri bat eraiki behar zuen 12.000 metro karratuko lursail baten barruan. Nazioarteko lehiaketa bat ireki behar zen atzerri eta estatuko arkitektuen artean eta lau urteko epe bat ematen zitzaion elkarteari lanak burutzeko; aurrekontuari dagokionez, bi miloi baino gehiagokoa izan beharko zuen kasinoak merezi zuen garrantzia izateko⁴².

Aurreko atal batean aipatutako gorabeherak medio, Kursaal kasinoko lanak atzerapen handia jasan behar izan zuten, aldamenean egiten ari ziren zubiaren lanak bezala, europako gerra, itsasoak sortzen zituen eragozpenak, etab. zirela eta.


⁴¹ "Día". 1921ko abuztuak 13

⁴² Rodríguez Sorondo: "Arquitectura pública en la ciudad de San Sebastián (1813-1922)", Donostia, 1985, (188-194 orr.)

1915eko urrian iragarri zen lehiaketa eta 1916ko martxoan erabaki ziren saria irabazi zuten proiektuak. Aurkeztu ziren zazpi proiektuen artean, irabazlea Parisko M. Augusto Bluysenek aurkezturiko “Cra-cra” proiektua izan zen. Epaimahaiak erabakia hartzeko garaian kontutan hartu zituen kasino baten beharren gainean arkitektuak zituen ezagupenak, eta bere proiektuan behar horiei ematen zien erantzun egokia. Areto zabalak, eta jokuak eta festak antolatzeko hall ikaragarri bat. Baita ere, itsasoari begira egongo ziren zabalera handiko terrazak. Epaimahaikideek aldaketa batzuk proposatu zituzten arkitektuari, baina proiektuaren izaera inola ere aldatzen ez zutenak.

Lanen zuzendaritza, arkitektua eta elkarteko administrari-ordezkarria zen Lucas Alday Jaunak hartu zuen eta lanak, 1918. urte bukaeran hasi ziren eta 1922an amaitu. Elkarteak berak enkargaturiko lanak zirenez, bere partaidea zen Migel Imazen eraikuntza elkarteak ibili zen lan horietan, aldi berean, zubiaren lanak amaitzen ari ziren bitartean.

Gros auzoko hedadurari, Kursaalak nolabaiteko dotorezi edo ikutu berezi bat eman zion, Donostia hiriko mugimendua ekialdera eramanez. Adibide bezala, inguruko lurrek ezagutu zuten salneurrien gorakada aipatu besterik ez dago: 1917an, metro karratua 250 pezetan zegoen eta 1920an ia 400 pezetakoa izatera pasa zen. Urte horietan, Gros auzoko lurretan inbertsio moduan lurra erosi zituztenek edo etxebizitzak eraikitzen zirenak enpresariak (Migel Imazen kasuan bezala), ikaragarritzko dirutzak egin zituzten lurraren balio handitze honekin.



Kursaal kasinoaren proiektua, Lucas Alday (1916)

Erabili ziren materialei buruz, hormigoi armatua kanpoaldean eta barnealdeko egiturari dagokionez. Ate, leiho eta tarima batzuetarako erabilitako egurrez gain, esan daiteke, eraikuntza hau erregaitza zela.

Eklektiko eta frantziar estiloa zuen eraikuntza honen berezitasunei buruz, zera esan daiteke: hiru gorputzez osaturik zegoela, eta erdikoa (bi solairuetakoa) beste biak baino altuagoa zela. Erdiko gorputz honek, bi dorre errektangularrak zituen bere alboetan. Eraikuntzara eskailera luze eta zabal baten bitartez sartzen zen eta aldamenetako bi gorputzen gainean, ikaragarritzko terrazak zeuden. Aurrealdeari dagokionez, irekia zen eta argi naturalari inongo trabarik ipintzen ez zioten leiho zabal batzuek jarri ziren.



Kursaala (1925 inguruan)

Barrualdeari buruz, ikuskizun areto handi bat zuen, ia 900 ikuslerentzako edukierarekin, eta hiru solairuetan zatiturik zegoen. Kanpoaldea, dotorea eta soila zen baina barnealdea, dotorea eta ikusgarria gertatzen zen. Kasinoko jokue-tarako egin zen Hall haundia, sapaian aurkitzen ziren izugarritzako hiru beirateen bitartez argituta zegoen; gela hau marmolezko zutabez inguraturik zegoen. Beste saloi pare bat zeuden jatetxe modura eta dantza-areto bezala antolaturik. Hitz batean, luxuz eta material noblez beteriko eraikuntza zen, Europako hiri garran-tzitsuenetako eraikuntzen inbidiarik ez zuena.

1922ko uztailaren 29an ospatu zen Kursaal handiaren inaugurazio ekitaldia, Alfontso XIII Erregea, María Cristina Erregina, eta Gipuzkoa eta Donostiako agintari garrantzitsuenen presentziarekin ospatu zen. Agintariek, “Sociedad Inmobiliaria del Gran Kursaal” elkarteko partaideek, hauen hartean Migel Imaz bera (argazkietan ikus daitekenez) eraikuntzaren berezitasunak erakutsi zizkie-ten Errege eta bestelako agintariei. Ondoren, Weber eta Liszten musika lanak jo zituen Orkestak, eta gauean, afariaren ondoren, goizalderarte luzatu zen gau-jaialdi batekin eman zitzaien bukaera Kursaalaren inaugurazio ekitaldiei.

Migel Imazi gauzak okertzen hasi zitzaizkion Kursaal kasinoaren inaugura-zioaren ondoren. Primo de Rivera gobernura iristearekin batera, Europa eta Espainiar estatuan ere bai, krisialdi ekonomiko larri bat piztu zela esan behar da.

Kursaalak, bere sorreran zuen helburua eta diru-iturri nagusia jokua zen, kasinoko jokuak. Munduko gerratearen ondorioz, Europako hainbat famili diru-dun Donostia eta Miarritze inguruan jarri ziren bizitzen. Ekonomi krisialdiari



Migel Imaz Alfontso XIII Erregari Kursala erausten
1.-Migel Imaz, 2.-Victoria Eugenia Erregina, 3.-Alfontso XIII



Kursalaren barruko aretoak



Moneok diseinatutako proiektuaren obrak, 1997an

jokuaren debekua gehitu zitzaion, 1924ko urriaren 31an. 1925eko uztailaren 23an, Kursaal eraikuntza konfiskatu egin zuen gobernuak eta data honetatik aurrera hasi zen Kursalaren madarikazioa. Donostiako “Centro de atracción y turismo” udal elkarteak saiatu zen zenbait jaialdi antolatzen (antzerki emanaldiak, zine emanaldiak, e.a.), baina alferrik izan zen.

1965ean lehiaketa bat ireki zen, bere ordez beste eraikuntza bat egiteko. Bigarren saiakera, 1970ean izan zen, baina bietan, aurrera eramateko proiektuaren zailtasunagatik edo lehiaketa hutsik geratu zelako, ez zen ezer aurrera eraman. Azkenik, 1973an, eztabaida askoren ondoren, Kursaal botata zen, eta “Sociedad Inmobiliaria de Gran Kursaal” elkarteko akziodunek, diru piska bat jasotzeko aukera izan zuten, nahiz eta banketxeak izan ziren zati handienarekin gelditu zirenak. Gure etxean entzundako kontuen arabera, Migel Imazen arreba zen Eusebia Imazen senideek dirutza polita jaso omen zuten garai hartan.

Gaur egun “K Solairua” deituriko lur hauetan Moneo arkitekto nafarraren Kubo famatuak eraikitzen hasita daude 1995 urteaz geroztik, 1990ean (“Rocas varadas” deituriko proiektuarekin irabazi zuen Donostiako Udalak antolaturiko nazioarteko lehiaketa) eztabaida bizien ondoren. Oraindik entzuten dira Kursaal zaharraren aldeko ahotsak ze nolako etxe dotorea zen aipatuz eta kubo berrien aurkakoak.

2.10. Gros auzoa

XIX. mende erdialdetik aurrera, frantsesek, belgiarrek eta alemaniarrek egindako inbertsioen ondorioz, industria eta hainbat tailer txikiz bete zen Gros auzoa, baina XX. mendearen hasierarekin batera, Kursaleko zabaldurari ekin zitzaion, gaur egun dirauten etxeak eta desagertutako Kursaal edifizioa orduan eraiki zirelarik.

Orain arte aipatu ditugun lanak ezagunenak dira, batez ere Donostiako hiriarren eraketan izan zuten garrantzia eta eraginagatik. Lan hauek Udalak aginduta-koak edo “Sociedad de Fomento de San Sebastián” eta “Sociedad Inmobiliaria del Gran Kursaal Marítimo” delako elkarteek bultzatutakoak ziren. Lan hauez gain, sortzen eta indartzen ari zen Gros auzoan hainbat eraikuntza lanetan parte hartu zuen kontratista eta bultzatzaile nagusienetako bat bezala. 1910-1930 bitartean, gaur egun Colon etorbidetik Zurriolara dihoan etorbide artean dauden etxadi gehienen eraikitze lanak egin ziren, eta Migel Imazek kontratista moduan parte hartu zuen, Agirre Miramon, Ramon M. Lili, Peña y Goñi, Zurriolako etorbidea eta bere izena daraman kaleetako etxeen eraikuntzetan.

Adibide ezagun eta dotoreenak, hauexek dira: Ramón M. Lili kaleko 1. eta 2. zenbakietako etxeak, Francisco Urcola arkitekтуaren proiektuaren arabera eraikitakoak, 1921ean ; Peña y Goñi kaleko 1. Zenbakiko etxea (Francisco Urcola, 1920) eta bere lehendabiziko lanetariko bat, Aita Larroca kaleko 1-3. Zenbakiko etxebizitzak (Francisco Urcola, 1908an).

Lehen aipaturiko lanak, Gros auzoko Zurriolako hondartzan eta Urumea ibaiaren eskubialdearen artean dauden kaleetan kokaturik daude, hau da, XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran Kantauri itsasoari kendutako lurren gainean. Baina, Gros auzoko beste eskualde batetan, Zemoriya deituriko auzoan, gaur egungo Nafarroako etorbidea eta Ulia mendiaren artean aurkitzen da. Mende honen hasierako eraikuntzak ditugu eta behe mailako jendearentzako egindakoak, hau da, langilegoa eta Donostiako hazkunderan lanean ihardun zuten ogibide ezberdineko jendearentzat. Hemen ere Migel Imazek etxeak eraikitzeaz gain, lurak ere erosi zituen etorkizunean etxeak egiteko itxaropenarekin (1930 inguruan, Migel Imazen ondorengoek, 300-400 metro karratuko lur eremua saldu zuten Ategorrieta aldean).

Hurrengo planoan, Migel Imaz kontratistak Donostian parte hartu zuen erai-kinak eta obrak markatuko ditugu, konturatu gaituzen zer nolako garrantzia izan zuten lan hauek XX. mende hasierako Donostian eta bere bilakaeran. Esan dai-teke, lan hauek, beste askorekin batera, arkitektura mailan, Donostiaren pertso-nalitatea osatzen lagundu dutela.



Donostia hiriko planoak (1996)

- | | |
|----------------------------------|---------------------------------|
| 1 PASEALEKU BERRIA | 7 Gros auzoa |
| 2 ZURRIOLA ZUBIA | 8 Gros auzoa |
| 3 VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA | 9 Gros auzoa |
| 4 M ^a CRISTINA HOTELA | 10 MIGEL IMAZ KALEA |
| 5 JUSTIZIA JAUREGIA | 11 ZEMORIYA AUZOA |
| 6 SAN BARTOLOME MUINOA | 12 KURSAALA (1974an desagertua) |
| | 13 URUMEA ESKUBIALDEKO ESPIGOIA |



Astiarrako zubiaren erdiko euskarrian agertzen den irudia

2.11. Ataunen egindako obrak (Astiarrako zubia, Erremedio)

Migel Imazen lanak ez ziren Donostiako hirira mugatu, eta hori horrela, bere jaioterrian, zenbait obra burutu zuen, beste batzuk asmo hutsean geratu ziren arren. Burututako lanen artean, Astiarra edo Andreseneko zubia dago.

1768an eraiki zen ezagutzen den Astiarrako lehendabiziko zubia. Harrizko zubia zen eta bi arkuz osaturik zegoen, oso kurba nabarmenarekin erdialdean. 1918ko akta liburuetan⁴³ azaltzen da Astiarra auzoko bizilagunek bidalitako kexa bat zubiaren egoera txarrari buruz. Hiru urte geroago Udalak erabaki zuen zubiaren obrak martxan jartzea, eta Migel Imaz kontratistari eman zioten material horniketaren ardura, Udaleko fakturatan ikus daitekenez.

1921an amaitu zen zubia, eta bere eraikuntza 7000 pezeta kostatu zen. Zubiaren diseinua, Modesto Zubizarreta, Bide edo errepideetako Injineruak (Ingeniero de caminos) egin zuen, planoan ageri den bezala. Aurrekontuaren hiru laurdenak udalak ordaindu zituen, eta beste guztia, Astiarrako bizilagunek eta, batez ere, zubiaren erabiltzaile nagusienek.

Zubiaren egitura ikustean, gaur egun asko hondatuta egon arren, eraiki zenean oso egitura dotoreko zubia zela ohar gaitezke. Alde banatan, hormigoiez eginitako bi bola zituen, osora lau (gaur egun hiru ditu). Baita ere, azpimarratu behar da zubiaren erdiko euskarriaren gainean, animalia zangoak eta gizaki baten aurpegiaren irudi bat dagoela. 75 urte inguru dituen zubi honetan Agauntza ibaia duen korronte indartsuaren ondorioak nabariak dira, batez ere erdiko euskarrian.

⁴³ Ataungo udal artxiboa. Akta liburuak (1918-1922)

Horren ondorioz, lehen aipaturiko irudiaren ezkerrezko atzaparra desagerturik dago. Astiarrako umeez, beraien jolasetarako erabiltzen zuten, hau da, harriak jaurtitzeko. Figura honi Zelestino deitzen zioten, dirudinez, zubiaren eraikuntzan lan egin zuen hargin baten izen berbera (Zelestino Mondaluze, gaur egun desagerturiko Azagola baserriko hargina), edo Haundietxen bizi zen Zelestino Urkia (Honek ere zubian lan egin zuen, hargin bezala). 1953ko uholdeak, lehen aipatu bezala, irudi horren ezkerreko hatzamarra desagertarazi zuten eta zubiaren beste atalak ere kaltetuak gertatu ziren. (Ez dakigu kasualitatea den edo ez, baina, Zurriolako zubia berri zutenean, 1992-94 urte inguruan, lehoi atzaparrak eta giza aurpegi duten lau figura ipini zituzten).

Azkenik, 1980ean, Dorrnsoro eta Lizarburu baserrietara doan bidearen konponketaren ondorioz, zubiak izugarrizko mugimendua jasan zuen eta 1983an, Agauntza ibaiaren bideratze lanak eta Astiarrako parkea eta Iturraldeko horma eraiki aurretik, kamioiak eta beste edozein motatako makinaren pisuak eta mugimenduak jasan ahal izateko, burdinezko bi zutabe ipini zizkioten zubiari.

Tomas Dorrnsororen testigantza arabera, San Gregorion egin zen urtanga baten lanetan ere parte hartu zuen Migel Imazek, 1923-21 inguruan (Gaztiñarreko depositoa). Astiarrako zubian gertatu zen bezala, lanak aurrera eramateko behar zen materiala (hormigoia, e.a.) eta igeltxeroak bidali zituen.

Erremedioko bainu-etxeari dagokionez, bere anaia Doroteoren bitartez, ur sendagarriak herrira jaisteko asmoa azaldu zion Udalari (Doroteo Imaz zinegotzia zen urte horietan), eta beheran bainu-etxe berri bat eraikitzekoa, baina handik lasterrera bi anaien heriotza gertatu zenez, proiektu hori bertan behera gertatu zen Udalaren aktek eta Juan Arinek, bere liburu batean, argi azaltzen duten bezala⁴⁴.




Astiarrako zubia, goitik ikusita

⁴⁴ Arin Dorrnsoro, Juan : "Pueblo de Ataun" Anuario de Eusko-Folklore, Tomo VI, 40.orr.



Astiarrako zubia, errekatik hartuta



Astiarrako zubiaren planoak

3. HERIOTZA ETA ONDOREN EGIN ZIREN OMENALDIAK

3.1. Heriotza (1925-06-06): arrazoiak

Arazoiak azaltzea oso konplexua da. Alde batetik, 1920ko hamarkadako krisialdi ekonomikoak bere eragina izan zuen Migel Imazen eraikuntza negoziotan. Eraikuntzak egiteko dirua falta zen (atzerriko kapitala aldegiten ari zen Donostiatik, eta orohar espainiar estatu osotik), eta bestetik, bere kapital gehiena “Sociedad inmobiliaria del Gran Kursaal” elkarteko akziotan eta zenbait eraikuntzen jabetzan oinarritzen zen. Kursaal eta elkartearen solairu gehienak hipotekatu egin zituzten negozioei aurre egiteko. 1924an sortu zen Banco de Crédito Hipotecarioaren sorreran parte hartu zuen Migel Imazek Administrazio Kontseiluko kontseilari modura⁴⁵; Banketxe honen helburua, eraikuntzetarako behar ziren kredituak ematea zen, Udalak eta Aldundiaren dirua eskasa zen unean, Gros eta beste hedadura batzuetako lanak gehien behar zuten garaian. Banketxe honetako sortzaileak, Migel Imazen modura, Donostiako eraikuntza munduan sartuta zeuden enpresa gizonak izan ziren, azken finean, beraien behar ekonomikoei erantzun ahal izango zien banketxe bat sortuz, higiezin edo inmobiliario maileguak eskainiko zituena.

Jokuaren debekuak eta horren eragin kaltegarria (Europako zenbait aberats eta nobleek alde egin zuten Miarritze, Frantziako mediterraneoko kostaldera), ireki berria zen Kurasaalean, zorrez beterik utzi zuten gure atandarra. Jokuaren debekua eta krisialdi ekonomikoak, turismoak erakartzen zuen atzerriko kapitala (batez ere Madril eta Bartzelona aldekoa) atzeratu egin zuten, eta Miarritzeko kasinoak kendu zion protagonismoa Donostia eta bere inguruari, turismo mailan behintzat.

Gure etxean beti entzun izan dudana kontua hau izan da: Bere anaia zen Doroteok honako hau esaten omen zion “Hi Migel onegia haiz, eta gizon haundi hoiek jan egingo haute”. Elkarteko beste bazkideek, Migel Imaz ez bezala, kapital haundia zuten baina diru aldetik nahikoa ondo hornituta zeuden eta ez hipotekaz josirik kredituak ezin itzuliz.

Beraz, ondasun higiezin ugariren jabe izan arren, alde batetik, Banketxetatik ez zuen krediturik lortzen, eta bestetik, ondasun hauek saltzea ezinezkoa gertatu zitzaion, urteetan zehar egindako lanek sortuarazi zizkieten zorrei erantzuteko (Banketxeak, langileak, e.a.). Zor hauek, dirudienez hain itogarriak gertatu zitzaion Migel Imazi erabaki latz bat hartzera eraman zutela, bere burua hiltzera. 1925eko ekainaren 5ean, ostirala, Donostiatik irten zen Ataunera (emazteari esanez, gauean ez bazen bueltatzen Ataunen egongo zela eta deituko ziola), bere hilotzak bisitatzera eta zehazki Aundietxetikiko Leandro eta bere senideak bisitatzera (Julian Imaz, nere aita, bost hilabeteko haur jaio berria zen). Arratsaldean, Tolosan

⁴⁵ Garate Ojangure, Montserrat : Cien años de la vida económica de San Sebastián (1887-1987). Donostia, 1995, 234-235 orr.

egon omen zen eta eskutitz batzuk idatzi omen zituen bere familia eta lagunei zuzendurik. Emazteari deitu zion hurrengo egunean itzuliko zela esanez. Donostiara bidean, goizaldera, Urnietako herrian gelditu eta trenbidea zegoen lekura joan, ordu batzuk igaro omen zituen oinez. Tren geltokiko langile batzuk gizon bat oinez zebilela ikusi eta zertan zebilen galdetu omen zioten Migel Imazi ; honek, obra bat hasi behar zuela eta arkitektoaren zain zegoela erantzun zuen. Azkenik, expresoa pasatzerakoan, goizeko bederatiak eta erdietan, bere burua bota zuen. Inoiz ez da argitu istripua izan zen edo bere burua bota zuen trenbidera, naiz bere arazo ekonomikoak ikusirik, suposat daiteken bigarrenko hipotesia dela sinesgarriena. Bere poltsikoetan, 51' 40 pezeta zituen, eta beti jantzita eramaten zuen txapela handik metro batzuetara aurkitu zen.

Larunbata zen eta bere emazteak Migel ez zela itzuli ikustean, larritu eta poli-ziarengana jo zuen. Hauek, Urnietan gizon bat hil zela adierazi eta identifikatzera joateko aukera eman zioten. Emaztearen anaia Ricardo joan eta ezagutu ere egin omen zuen. Horrez gain, eratzunean, Migel Imaz eta Julia Ordoñoren izenen inisialak azaltzen ziren, ezkontza eguneko dataekin batera (8-01-1916).

Bere heriotzaren hurrengo egunean, egunkariek berria ematen zuten hildakoa nor zen jakin gabe eta honako galdera hau eginez : “Istripua izan da ala bere burua hil du?”⁴⁶. Heriotza honek oihartzun handia izan zuen Donostiako egunkariaren artean, hurrengo astearteko egunkarietan (astelehenetan ez baitziren argitaratzen), hildakoaren nortasuna ezagutu ondoren.

Migel Imazen heriotzaren oihartzuna Donostiako egunkarietan:



“La Voz de Guipúzcoa”. 1925-06-07

⁴⁶ La Voz de Guipúzcoa. 1925eko ekainaren 7ko egunkaria

Hiletak, handik hiru egunetara ospatu ziren Santa Mariako elizan. Astelehena zenez, egunkariak jai egiten zuten eguna, jende askok ez zuen heriotz honen berri izan. Egun berean, lagun ugari bildu ziren bere hilkutxa Polloeko hilerrira eramaten laguntzeko. Hamabi kotxeetako segizio bat antolatu omen zuten, eta bere hilkutzaren gainean bi koroe omen zeramatzan, bat “Sociedad del Gran Kursaal” elkartearena eta bestea, Errenteriko marmoleria elkartekoarena (Miguel Imazen enkargu asko jaso izan zituzten). Asteartean, hilaren 9an, goizeko hamai- ketan ospatu ziren bere hileta elizkizunak Santa Mariako elizan, Donostia eta Ataungo Udaletako ordezkariekin eta jende ugariaren parte hartzearekin.

La Voz de Guipuzcoa egunkarian, Miguel Imazen pertsonalitateari buruz argi- taratutako pasarte: *“Imaz, vino de Ataun, su pueblo natal, sin otros medios de defensa que una voluntad firme y decidida y un amor al trabajo rayando en la exageración. Comenzó siendo un humilde cantero y acabó reconocido como uno de los contratistas de más firme crédito en San Sebastián, augurandole todos una tranquila vejez, basada en el premio al trabajo honrado de muchos años de vida”*

“Descanse en paz el honrado trabajador, que fue en vida Don Miguel Imaz”

Egun bereko “El Pueblo Vasco” egunkariak ere Miguel Imazi buruzko honako pasarte hau zekarren : *“Miguel Imaz, el humilde obrero de Ataun que hace unos treinta años llegó a la capital, era uno de los hombres más representativos del esfuerzo guipuzcoano : el típico contratista vasco ; audaz, laborioso, empírico y afortunado ; salud, actividad, visión y crédito. Construyó numerosos edificios, entre los que figura el Hotel María Cristina ; se aventuró con éxito obras como el muro que tajó el cerro de San Bartolomé ; y fue quién agrupó los capitales donostiarras, que dieron cima a la magna empresa del Kursaal y su ensanche, en cuya edificación trabajaba aún intensamente.*

Es bién popular y admirado el esfuerzo de este bravo guipuzcoano, a quién tanto debe el progreso de la ciudad, hoy unánimemente emocionada. Siempre se recordará al Señor Imaz como representante esforzado de esa vanguardia de hombres cuya labor impulsa el desarrollo económico de los pueblos. Su vida de arrojo y laboriosidad merecía otro desenlace. No ha sido así y la ciudad lo deplora sintiendo la perdida de una de sus más bravas capacidades motoras.

¡ Homenaje al luchador y paz a su espíritu!”

El hombre que fué muerto el sábado por el tren en Urnieta era el contratista, señor Imaz

Contrariedades económicas le llevaron a poner fin a una vida de ininterrumpida laboriosidad

En nuestro último número, publicábamos una noticia oficial dando cuenta de haber sido arrollado en Urnieta, por el tren, un hombre, cuyo cadáver no pudo ser identificado.

Se daban algunos detalles del suceso y se dudaba si había sido un suicidio o se trataba de un accidente puramente fortuito.

Nadie podía imaginarse que aquel hombre horriblemente mutilado, hasta el extremo de no poder ser identificado en el acto, era una de las personas más conocidas en San Sebastián y que gozaba de generales simpatías, debidas a su trato franco, su honradez y sus dotes de trabajador infatigable, hombre de negocios, emprendedor y activo y digno por todos conceptos del aprecio en que se le tenía en nuestra ciudad.

El hombre muerto el sábado pasado cerca de Urnieta, era el conocido contratista de obras, don Miguel Imaz Apalategui, persona de grandes iniciativas, amante como pocos del progreso de San Sebastián y a quien se deben en gran parte la mayoría de las construcciones del hermoso barrio de Gros, el Gran Kursaal y el amplio puente que pone en comunicación la capital con el populoso barrio de Gros.

CONTRARIIDADES ECONOMICAS

Los íntimos del señor Imaz observaban de cierto tiempo a esta parte algunas variaciones profundas en el carácter franco y optimista del amigo, que parecía muy preocupado, sobre todo en algunos momentos de su vida, en los que se veía precisado a sostener muchos obreros en las diferentes construcciones que tenía a su cargo.

La crisis de la construcción había comprometido en parte su fortuna, pero Imaz era hombre sereno y sabía compaginar las cosas en forma tal, que podía haber frente a las necesidades del momento.

Lo que haya podido pasar estos últimos días, no se sabe a punto cierto y menos las causas que le hayan perturbado hasta el extremo de tomar la tremenda resolución,

trímonio; se vino en conocimiento de la triste realidad que todos presentían.

Además se observó que sobre la mesilla de noche de su habitación había dejado la cartera con dinero y su "carnet" de somatenista.

VARIAS CARTAS

Parece ser que la noche anterior al suicidio, el señor Imaz, que, a lo visto, tenía bien madurada su trágica resolución, estuvo en Tolosa, y allí escribió buen número de cartas, dirigidas a familiares suyos y a personas que coparticipaban con él en diversas empresas. Naturalmente, no sabemos en qué términos estarían concebidas, pero no es difícil suponer que en ellas aludiría a sus propósitos.

Después de escritas las cartas, el señor Imaz debió trasladarse a Urnieta en tren, y anduvo algún tiempo paseando por los alrededores del lugar en que había de morir. Algunos empleados de Vías y Obras de la Compañía del Norte, le vieron pasear de madrugada por los alrededores de la línea del ferrocarril. Alguien de estos empleados le preguntó qué hacía por allí a horas tan desusadas, y el señor Imaz repitió que estaba esperando el arquitecto de una obra suya, para ir juntos a visitarla.

EL ENTIERRO

Ayer, lunes, a las seis de la tarde, fué trasladado a San Sebastián el cadáver del señor Imaz. Venía ya en una carroza, e inmediatamente se organizó la comitiva fúnebre. Sobre el féretro iban dos coronas, una de la Sociedad de Marmolería, de Rentería, y otra de la Sociedad propietaria del Gran Kursaal, y seguían a la carroza mortuoria hasta doce automóviles y muchas personas a pie, a pesar de que la carencia de peciódicos hizo que se ignorase por gran número de donostiarras la desgracia ocurrida, y de que fueron muy pocos los que se enteraron de que ayer se daría tierra al cadáver del señor Imaz.

Descansa en paz el digno trabajador.

qua todo el mundo lamenta.

Es indudable que las complicaciones fueron en aumento de día en día, hasta llegar a hacer insostenible una situación que, si bien era oscura y en cierto modo peligrosa, pudo muy bien ser afrontada, recurriendo a los inmuebles que el señor Imaz poseía, que, como es sabido, son varios y de positivo valor, y al crédito que gozaba en todos los establecimientos financieros de la capital.

LA PERSONALIDAD DEL Sr. IMAZ

Imaz, vino de Ataun, su pueblo natal, sin otros medios de defensa que una voluntad firme y decidida y un amor al trabajo rayano en la exageración. Comenzó siendo un humilde cantero y acabó reconocido como uno de los contratistas de más firme crédito en San Sebastián, asegurándole toda una tranquila vejez, basada en el premio al trabajo honrado de muchos años de vida.

Además de las obras citadas en el barrio de Gros, construyó el señor Imaz el Gran Hotel María Cristina, el Palacio de Justicia, el Paseo del Príncipe de Asturias y la llamada Casa de Gros.

PRESENTIMIENTOS CONFIRMADOS

Nada anormal habían notado en él sus familiares, aunque hemos oído asegurar que días pasados, hablando con una persona de su familia, le había dicho que, si no fuera por el cariño que profesaba a su esposa, no merecía la pena de seguir viviendo una vida llena de preocupaciones e inquietudes.

El último viernes salió de su casa, anunciando que iba a Ataun para visitar a sus sobrinos y que si no volvía aquella noche, no estuvieran intranquilos, pues se quedaría allí a dormir, pero que de todos modos avisaría por teléfono si no regresaba.

Efectivamente, en las últimas horas de la tarde conferenció por teléfono con su esposa, sin que ésta notara absolutamente nada anormal que pudiera revelar los propósitos que indudablemente vagaban por su imaginación.

Al día siguiente, cuando la Prensa de la tarde daba la noticia del suceso ocurrido en Urciela, tuvo la señora de Imaz un triste presentimiento y preguntó a Urciela por las señas del cadáver que había sido encontrado en la vía férrea.

Se pidieron nuevos detalles, se suplicó una mirada que indicara llevaban los años del suicida, y al saber que eran los de su esposa y las suyas y la fecha de su ma-

que fué en vida don Miguel Imaz, que tenía derecho, por sus dotes de hombre emprendedor y activo, a otra muerte que la que le ha deparado una mala ventura. Y reciba su familia nuestro pésame en su gran aflicción.

En el Victoria Eugenia

Un atrayente programa de variedades

Hoy debutan en el Victoria Eugenia los cinco mejores números de variedades que han pasado este año por San Sebastián, lo cual no es precisamente hacer el elogio de esos números. Quizá haya podido tacharse, en efecto, de poco atractivos los programas que en las últimas semanas ofreció la Empresa del Victoria Eugenia. Ello tenía una justificación en las dificultades que en esta época del año existen para contratar a las grandes figuras del género. Casi todos los números de algún valor trabajan en los locales de la Corte o del Mediodía.

Sin embargo, el Victoria Eugenia, en su deseo de servir a nuestro público, ha contratado para unos cuantos días a varios artistas consagrados ya por el aplauso en toda España. El mayor elogio está en sus nombres: Pepe Medina, Mireya, Schlap, Frida y el trío de excéntricos malabazidas — Cole, Ana Rago, que tanto éxito ha obtenido en el Infanta Isabel de Madrid.

Es un programa completo, donde una «estrella» de la categoría de Micoya, cuyo estilo original de bailarina ha hecho célebre su nombre, alterna con el imprescindible berrista y trapecista, con el excéntrico que provoca la hilaridad y el gimnasia que da su nota de intrepidez y emoción.

De P. pe Medina, ¿qué se puede decir ahora si no que no ha envejecido? Su gracia natural, sus chistes y sus discursos, sus imitaciones y sus caricaturas son siempre nuevos y siempre suscitan la misma admiración, por la espontaneidad y la vis cómica.

No sería hiperbólico decir que este es uno de los programas de mayor atracción que se han visto en San Sebastián, de un tiempo a esta parte.

TELEFONOS DE «LA VOZ»

Dirección y Redacción 2-85
Administración y Talleres 2-24



1925eko ekainaren 9an argitaratutako eskela “La Voz de Guipúzcoa” egunkarian, Gipuzkoako Enpresari Elkartek eskainia.

Ataungo Udalak Migel Imazen heriotzaren inguruan hitzegin zuen 1925eko ekainaren 14ko ez-ohizko batzarrean. Hurrengo lerroetan adierazten diren beza-lako laudorioak erabili zituzten Migeli buruz hitz egiterakoan:

“El Sr. Presidente manifiesta : Que un fin inesperado ha consternado a este pueblo con gran pesar suyo. Se trata de la sentida muerte de Don Juan Miguel Imaz Apalategui, hijo de esta villa. Hombre laborioso y modesto, de trato afable con todos, salió de Ataun en la flor de su edad para conquistar mediante el trabajo los laureles del bienestar de su vida y alcanzar relativa posición social yendo a la hermosa capital guipuzcoana. Pobre de recursos, pero rico en honradez, laboriosidad, constancia, y voluntad pronto fue adquiriendo las simpatías por su probidad y conocimientos que dejaron su nombre en lugar preeminente. Allí desarrolló su inteligencia y demostró su voluntad ferrea y tacto cuanto no se podía esperar. Diganlo sino sus obras colosales en materia de construcción, que a nadie se ocultan. La impetuosidad del oleaje del mar Cantábrico encuentra en Imaz un dique poderoso, le detiene más allá de su radio de acción y le presenta a la antes hermosa ciudad otra más bella y grandiosa, orgullo de la raza. Llor al honrado vasco. Todos hemos de deplorar y deploramos perdida tan irreparable que en un momento de delirio (sin duda) sucumbió y elevemos nuestras plegarias al Cielo, para que Dios Nuestro Señor se apiade de su siervo, pues cristiano y practicó la caridad en los humildes obreos y pobres. ... el recuerdo de tan probo hombre no solo enorgullece al pueblo donde vió la luz sino porque es un sentimiento que se demuestra a la par por el hijo que quiso el bienestar de su pueblo, Provincia y Nación, nuestra amada España, pues españoles y gran patriota quién como el deja huella en sus obras y en los hechos perteneciendo al gran Somaten⁴⁷ Español”.

⁴⁷ Somaten : Primo de Riveraren Diktadura garaian, mugimendu ezkertiarrei aurka egiteko indar parapolizialak ziren. Diktadura garaian, gobernuak eta berari laguntza ematen zioten gizarteko zenbait sektoreek (enpresariak, bankuak, e.a.) bultzatzen zituzten indar papolizialak, mugimendu ezkertiarrei aurka egiteko.

Ataungo Udalaren erabaki hauek egunkarietan argitaratu ziren, adibidez, “La Voz de Guipúzcoa” egunkarian, 1925eko ekainaren 17ko alean. Batzar honetan bertan zenbait ekintza aurrera eramatea erabaki zen : lehendabizi, bere alargunari Udalaren doluminik biziena bidaltzea ; Elias Salaverria pintoreak Migel Imazen koadro bat pintatzeko egindako eskaintza onartzea ; hiru pertsonen osatutako batzorde bat sortzea (Pedro Zurutuza Alkatea, Felix Ceberio zinegotzia eta Jose Mancisidor idazkaria) Donostiako Udalarekin bat, Migel Imazek merezi zuen omenaldia antolatzeke ; azkenik, bere arimaren aldeko meza eskaintzea Ataungo Udalaren izenean eta bertara Ataungo eskolako ikasle eta beraien irakasleak gonbidatzea.

Azkenean, Migel Imazen aldeko meza hori 1926ko otsailaren 8an ospatu zen Ataun San Martingo elizan, Donostia eta Ataungo Udaletako agintarien partaidetzarekin.

3.2. Migel Imaz Kalea⁴⁸

Donostiako Udalak, bere aldetik, 1925eko ekainaren 12ko Udal Batzordearen batzarrean, Migel Imazen alargunari bere doluminik biziena agertzeaz gain (*El fallecimiento de D. Miguel Imaz, contratista que por su laboriosidad, competencia, esfuerzo e iniciativas, tantos beneficios ha reportado a San Sebastián y en toda la provincia, ha producido un sentimiento general, del que ha de participar el Ayuntamiento. Por esta razón, propone que se haga constar en acta el sentimiento de la Comisión Municipal Permanente y que se envíe una comunicación de pésame a la familia del finado*), Caballero zinegotziak, Gros auzoko kale bati bere izena ematea proposatu zuen (*El Sr. Caballero propone que se dé el nombre de Miguel Imaz a la calle que se halla junto al Matadero y cuyas construcciones fueron ejecutadas en su totalidad por el finado*). Caballero Jaunaren proposamena Sustapen Batzordeak aztertzeke erabakia hartu zen.

Handik zazpi egunetara Udal Batzordeak egindako batzarrean, Migel Imazi egin behar zitzaizkion omenaldi ekitaldietan parte hartzeari buruz hitzegin zen, Ataungo Udalak bidalitako idatziari honako modu honetan erantzun zitzaizolarik:

“Dada cuenta de la copia de los acuerdos adoptados por el Ayuntamiento de Ataun en relación con el proyecto homenaje al finado D. Miguel Imaz, el Sr. Presidente dice que la comisión organizadora del homenaje ha enviado una copia para que el Ayuntamiento donostiarra tenga conocimiento de los actos proyectados y en su vista, adopte los acuerdos procedentes, en cuanto se refiere a los que por su parte ha de organizar.

A su juicio, el Ayuntamiento de San Sebastián pudiera muy bien contribuir a ese homenaje, dando cierta solemnidad a la apertura de la calle a la que haya de darse el nombre del finado, propositos ambos que la comisión de fomento deberá someter al Ayuntamiento Pleno en su día, para que recaiga la resolución precedente”.

⁴⁸ Donostiako Udala. Aktak (1925)

Ucelayeta Jaunak Miguel Imazi oroitarri bat ipintzea proposatu zuen Gros auzoan. Hau eta aurreko proposamenak Sustapen Batzordearen esku utzi ziren, honek azter zitzaiz.

Azkenean, 1925eko azaroaren 13an ospatutako Udal Batzarraren plenoak, Sustapen Batzordeak egindako proposamena aztertu ondoren, bere onespena eman zion, honako modu honetan :

“Son varias ya las casas construidas en el nuevo ensanche de la Zurriola, al otro lado del puente, donde todavía han de abrirse nuevas calles, en cuya edificación tomó parte activísima el finado D. Miguel Imaz, que con su inteligencia y laboriosidad contribuyó en gran parte al desarrollo y ensanche de aquella zona, y como la calle a que se hace referencia en su escrito D. Nicolás Goitia propietario de una de las casas situadas en la que sigue paralela a la de Peña y Goñi, no lleva denominación alguna, esta Comisión de Fomento tiene el honor de proponer a V. E. tenga a bien acordar que a dicha calle se dé el nombre del finado Miguel Imaz y asimismo que se coloque una lápida dedicada a su nombre”

Kalearen izena ematea zela eta, bere alarguna eta Ataungo Udaleko ordezkari-iei gonbitea pasatu zitzaizen ekitaldi horietan parte hartzeko.



Goiko argazkian
Miguel Imaz kalearen
ikuspegia eta
behekoan plaka

3.3. Koadroa

Ataungo Udalaren batzar aretoan dagoen Migel Imazen koadroari buruz aipamen txiki bat egin behar dugu, koadro horren nondik norakoan etabarren gainean. Migel Imaz hil ondoren, 1925eko ekainaren 14an Ataungo Udalak egindako ez-ohiko batzarrean hartutako erabakien artean (Migel Imazen heriotzari buruz), bigarren puntuan, zera erabaki zen: Elias Salaverría pintore famatuak Ataungo herriari Migel Imaz hilberriaren koadro bat oparitzeko egindako eskaintzari baiezkota ematea eta koadro hori batzar-aretoan Alfonso XIII Erregearen erretratuaren ondoan ipintzea.

Elías Salaverría lezotarra (1883-1952) garai hartako pintorerik ezagunenetakoa zela esan daiteke. Bere espezialitatea, erretratuak ziren, eta 1920. hamarkadan, pertsonaia ospetsu askoren erretratuak egin zituen enkarguz.. Oso ezaguna da Loiolako Ignazioren koadroa, eta baita ere 1922an pintatu zuen “La vuelta de Elcano” koadroa, getariar mariñelak munduari emandako lehen biraren IV. Mendeurrena ospatzeko. 1930ean Madrilera joan zen bizitzera eta han hil zen, aldamiu batetik erori ondoren.

Badirudi, Elias Salaverría pintoreak Migel Imazi ez ziola inoiz bere erretratu margotu. Ricardo de Urgoitiren bidez - Migel Imazen lagun bat - argazki bat bidali zitzaion margolariari, eta urte bereko irailaren 10etik 15era bitartean jasko zuela ziurtatzen zion Urgoitik Udalarari (Migel Imazen argazki hau, bere heriotza zela medio, “El Pueblo Vasco” egunkariak argitaratu zuen 1925eko ekainaren 9an). Handik egun batzutura, Urgoitik Udaletxera jo zuen galdetzeko zein inskripzio edo idatzi ipini behar zitzaion koadroari, eta Udalak erantzun zion (1925eko irailaren 28ko ohizko batzarrean) “Miguel Imaz” ipintzea aski zela.

Handik bi hilabetera Urgoitik Udalarari jakinarazi zion koadroa amaituta zegoela eta noiz eta nola bidaltzea nahi zuen. 1925eko azaroaren 28ko lauhilabeteroko batzarraren aktak dioenez, 1926ko otsailaren 2an ospatu zen Migel Imaz hildakoaren arimaren aldeko meza. Meza hori atzeratu beharrean gertatu zen eta azkenean, otsailaren 8an ospatu zen. Ordurako, Ricardo de Urgoiti jaunak Elias Salaverría margoturiko koadroa jaso eta Ataungo Udaletxera bidalia zuen, eta Migel Imazen arimaren aldeko meza ospatu zenerako, koadro hori batzar-aretoan zintzilik zegoen eta gonbidatuek (Donostiako Udaleko ordezkariak, Gobernuordezkariak, eta herritarrak), koadroa ikusteko aukera izan zuten.

1990 inguruan, Ataungo Udaletxearen berrikuntza lanen amaierarekin batera, koadro hau konpontzera eta garbitzera eraman zen, premian baitzegoen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Artelekuko Zaharberritze-tailerrera bidali zen, eta urte bereko azaroan egindako inaugurazio ekitaldian, orain dagoen lekuan jarri zen.

Koadroaren berezitasunei degokionez, Artelekuko teknikarien txostenean jasotako zenbait gauza azpimarratu beharko genituzke: lehendabizi, 79 x 62,5 zm.ko neurria duen koadroa, Migel Imaz ataudar ospetsuaren bukatu gabeko erretratu dela, batez ere eskuei eta aurpegiari dagokienez. Koadroa dezente

hondatuta zegoen, hezetasunaren ondorioz eta oihalak zenbait zimurdura zituen. Gaur egun, Udaletxeko batzar aretoan ikus daiteke, lehenago aipatu bezala, Ataungo udalak pertsonaia honen omenez agindutako erretratua.



*Ataungo Udaletxeko batzar aretoan dagoen Migel Imazen koadroa.
Elias Salaverria 1925*

3.4. Testigantzak

Oso zaila gertatu zait Migel Imaz ezagutu zuten pertsonen testigantza lortzea. Orain dela 72 urte hil zen pertsona bat ezagutu zutenak eta oroitzapen garbi bat dutenak, gutxienez 90 urtetik gorakoak dira. Ataunen, Migel Imaz ezagutu eta berarekin egon zirenen artean, San Gregorioko Ugalde etxeko Tomas Dorronsororekin hitzegiteko aukera izan dut, lan hau egiteko garaian. Tomasek 93 urte ditu, buru argia eta solaserako gizon aproposa dela aitortu beharrean nago.

Tomas gaztetatik hasi zen lanean, hargin bezala, eta Donostiara joan zenean bere anai Benitori bisita bat egitera eta gero soldaduskara, instrukzioa egitera, Migel Imaz ezagutzea suertatu zitzaion. Honek, ataundarrak zirela jakitean, Kursala erakutsi omen zien. Hori 1922. urte inguruan gertatu zen, Kursala inauguratu aurretik.

Berak nirekin egindako solasaldien zati batzuk azalduko ditut ondoren:

“Arek e Donostin zea aundie eintzian, garai hartan Donostiko jauntxotako oan, gero okerra izan zian, angokatik izangoan. Zubin historie, zubi berri ue, han bi kontratista hasi ittuan, bat frantsesa (Bartissol injinerua) eta bestea emengoa oan (Ribera) eta ezin einda utzi zien ; harrek einda utzi zian zubie, bai jauna. Ta zekatik ? gauza errexa baiño asmau ein bear. Ango olatue bakik, itsasoko bialdiko olatuk, eunez eitten zuen lana gauen atzea beize eaman eitten zian ; harrek eintzian kantera aatatik bialdiko arri aundik eaman, bialdiko arripila aundik aurren eiñ, eta arrek indarra eitten zola urei, eta zubie eintzian. Kursaalare bai. Ne anaie aittuan lanen zubi azpin, harrekin batea aittuoan zulok betetzen, eta eak orduako paitek eitten asita zerean eta bialdiko zulok zeuzkean einda, eta ak e bete ein bear. Bi ta iru ordu ematen zioan bakarrik lanen aitzeko an. Marea iotzeoan bestela, eta jaiste oanean aprotxau bear. Masak eitten zien sekon, zakuk bete ta pronto jarri, jetxi ta zulok bete.....”

“Famatue ?, emen baño aundigoa oan han, Donostin. Emen gutxik ezautuko zien ue, lenaukok, kanpoko pertsonak ezittuan ezautzen ordun, kanpoko pertsona ezautu ? bueno, bueno, gu bai. Geo, guk ezautzen genduan zea, itturrik ekarri ittuan emen bost urte lenau ilzanetio eta depositu, Gaztiñarre esaten zaion tokin, antxe tontorren, hango lanak e arrek eintzian, arrek o arotza (enkofradoa egiten zuenari buruz) arren bidez etorrioan, San Martingo, lenau esandako Joxe Garmendia, arren koñadoa o etzekiat zer zan. Geo materialak ak ekarri zetuen, porlana, garai artan ondarrak etzeoan kanterakoi, Bidasoan o Urumean, estazioaldeko zubi artan ordun atetzen zien txalupakin ondarra, angon ondarra ekarri zien geo masea eitteko, emengok lokatza zea eukitzen zian ta, txarra, leen esan deana, kajak jarri ta emen etzeoan olako lanik eitten zianik, masea botatzeko ta, zorun gañeko tapea emateko ta, kajak jarri behar, angon langilea aittuoan orik danak eitten. Gaztie, eta gu launtzen....”

4. Azken hitzak

Sarreran nioen bezala, lan honi ekiterakoan, nire helburua Migel Imaz pertsonaiaren lanak Ataungo herritarrei ezagutaraztea izan da. Kontratista apal bat ez izan arren (garrantzi handiko lan arkitektonikoetan parte hartu zuen), berak utzitako arrastoak arakatzea ez da hain erraza gertatu. Hala ere, Donostian XX. mende hasieran zenbaiterainoko garrantzia izan zuen argi gelditu da, ez bakarrik bere lanagatik, baizik eta hazkunde hori bultzatu zuten elkarteetan izan zuen partaidetzagatik (Sociedad Inmobiliaria del Gran Kursaal), Zurriolako zubia amaitzerakoan egin zioten omenaldiagatik, eta bere heriotzak izan zuen oihartzunagatik. Migel Imaz hil eta handik lasterrera Gros auzoko kale bati bere izena jarri ziotela gogoratu besterik dago.

XIX. mendearan amaieran eraikuntza munduan geroz eta garrantzi gehiago hartzen joan zen hormigoï armatuaren erabilera, Migel Imazek, Donostian bere lan garrantzitsuenetan erabili eta sendotu egin zuen. Hormigoïaren erabilera gehien ezagutzen zuen Ribera injineruarekin harreman estua izan zuen, eta material honen erabilera M^a Cristina Hotelean, Zurriolako zubian, Kursaalean eta beste hainbat lanetan aurrera eraman zuen. Esan daiteke, alderdi honetatik, berri-tzaile bat genuela Migel Imaz.

Bestalde, Ataunen egin zituen obrak edo aurrera eraman nahi izan zituenak azpimarratzen saiatu naiz. Izan ere, nahiz eta gaztetatik Donostiara joan lanera, bere jaioterriarekin zuen lotura inoiz ez zuen eten. Bere heriotz egunaren bezperan Atauna egin zuen bidaiak garbi adierazten duen bezala.

Orain dela zenbait urte lan hau egitera bultzatu ninduenari esker (Serafin Jaka), eta Ataungo Udalak antolaturiko “Ataun Aztergai Beka”ri esker, lan xume hau argitaratzea posible izan da. Era horretara espero dut ataundarrei Migel Imaz ezagutaraztea. Ataungo herriak bere historian zehar eman dituen pertsonaia ospetsuenen artean koka genezake gizon hau. Nahiz eta gaur egun haren berri ez jakin, garai hartan ospe handiko gizona izan zen ataundarron artean.

5. Bibliografia:

- AA.BB : "Ataun" , Donostiako Aurrezki Kutxa, Donostia, 1978
- Aierbe, Enrike (de.lit.) : "Donostia-San Sebastián : Hiria ; bizia, paisaia, sinboloak", Sendoa, Oiartzun, 1994
- Anabitarte, Baldomero : "Gestión municipal de San Sebastián (1894-1900)". Donostia, 1906 (2. argital. 1974).
- Anabitarte, Baldomero : "Gestión del municipio de San Sebastián (1901-1925)". Donostia, 1971
- Anabitarte, Baldomero : "Gestión del municipio de San Sebastián en el siglo XIX". Donostia, 1903
- Arin Dorronsoro, Juan : "Establecimientos humanos y toponimia : Toponimia del pueblo de Ataun". Anuario de Eusko-Folklore, Tomo VIII, 1928
- Arin Dorronsoro, Juan : "Pueblo de Ataun". Anuario de Eusko-Folklore, Tomo VI, 1926
- Arsuaga, Miguel ; Sesé, Luis : "Donostia-San Sebastián. Guía de Arquitectura". Donostia : Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala = Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro, 1996
- Barandiaran, Luis de : "José Miguel de Barandiarán : Patriarca de la cultura vasca", Donostia, 1976
- Garate Ojanguren, Montserrat : "Cien años de la vida económica de San Sebastián", Kutxa Fundazioa, Donostia, 1996
- Izaguirre Epalza, Ricardo : "El barrio de Gros en el primer cuarto del siglo XX". CAP, 1978
- Mendiola Querejeta, Rufino : "La vida cultural en San Sebastián : anotaciones histórico-retrospectivas", Donostia, 1963
- Oyarzun Iñarra, María : "San Sebastian, sus calles y principales monumentos", Donostia, 1951
- Pérez Arregui, Ignacio : "Historia de San Sebastián", CAM, Donostia, 1966
- Rodríguez Sorondo, M^a del Carmen : "Arquitectura pública en la ciudad de San Sebastián (1813-1922)". Donostia ; Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones, 1985
- Sada, Javier y Asier : "Historia de San Sebastián", Txertoa, Donostia, 1995
- Sada, Javier : "Historia de los casinos de San Sebastián", Donostia, 1990
- Sada, Javier : "Historia de San Sebastián a través de sus calles", Donostia, 1988
- Zumalde, Ignacio : "Historia de Oñate", Diputación Provincial de Guipuzcoa, Donostia, 1957

Kontsultatutako Artxiboak :

- Ataungo Udal Artxiboa
- Donostiako Udal Artxiboa
- Donostiako Udal Liburutegia : Hemeroteka
- Registro Mercantil de Guipuzcoa
- Koldo Mitxelena Kulturunea
- Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa

MIGEL IMAZ APALATEGI

AZTERKETA

HISTORIKO-BIOGRAFIKOA

Migel Imaz Apalategi (1873-1925), ataudarra, Donostiako eraikuntza nagusien egilea izan zen: Maria Cristina Hotela, Justizia Jauregia, Zurriolako zubia, Kursaal Kasinoa, Victoria Eugenia aretoa, Pasealeku berria, etabar.

Eraikuntza hauen egilea izateak, Donostiako hirian eta gizartean arrakasta eta sona haundiko gizona bihurtu zuen.



ATAUNgo UDALA